



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko martxoaren 15a

25. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartzea. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, artxiboei eta dokumentuei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (19. or.).
- Foru Lege proiektua, Ogasun Publikoari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (33. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako ondareari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (40. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2007ko otsailaren 14ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko Foru Lege proiektua gobernuari itzuldakion eskatzen duena.

Zioak: Parlamentu-talde honen iritziz, ez da egokia foru lege proiektu hau Nafarroako Parlamentura igortzea; batetik, gertatu den uneagatik eta, bestetik, duen edukia ez delako beharrezkoa.

Horrek ez du esan nahi parlamentu-talde hau administrazio elektronikoa bultzatzearen aurka dagoela. Aitzitik, talde hau izan zen Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruz 2004ko azaroaren 5ean egin zen eztabaidan ebazpen proposamen hau aurkeztu zuena: "Administrazio elektronikoa bultzatzeko beharrari buruzkoa". Proposamen horretan, Nafarroako Parlamentuak adierazi zuen konprometituta zegoela administrazio elektronikoen teknologien erabilera bultzatu eta garatzearekin, herritarrekiko harreman estuagoa ahalbidetzeko eta haien parte-hartze politiko

eta soziala afera publikoetan ahalik eta handiena izan zedin bultzatzeko; era berean, Nafarroako Gobernuak premiaturik ez zuten administrazio elektronikoa bultzatu eta garatzeko neurri guztiak har zitzan. Ebazpen hori aho batez onetsi zen eta 2004ko azaroaren 17ko 99. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean dago argitaratuta.

Unea ez da egokia, hasteko, legegintzaldi hau amaitzeko gelditzen den denbora urriagatik. Nafarroako Gobernuak proiektua 2007ko otsailaren 8an igorri zuen Nafarroako Parlamentura, hau da, VI. legegintzaldiko azken bilkuraldia amaitzeko 51 egun natural falta zirela. Tarte hori urriegia da edozein foru lege proiektu gutxienezko zorrotasunarekin izapidetu eta eztabaidatzeko. Foru lege proiektu batek izapidetzeko batez beste behar duen denbora, 2006an zehar igorri direnak kontuan hartzen baditugu, ia hiru hilabete izaten da, denboraldi baliogabeak zenbatu gabe; baina denbora are urriagoa da kontuan hartzen badugu proiektua igorri zenean beste bederatzi foru lege proiektu ari zirela izapidetzen, zuzenketa aurkeztutako proiektu honekin batera beste bi ere igorri zirela eta, hurrengo astean, Nafarroako Gobernuak beste proiektu bat ere igorri zuela. Egoera horretan ezinezkoa da Parlamentuan egoki aztertzea, zuzentzea eta eztabaidatzea Nafarroako Gobernuak proposatzen dituen arauak, kontuan izanda, bereziki, proiektuok gai garrantzitsu eta konplexuei buruzkoak direla, hala nola Nafarroako poliziak, Nafarroako Ogasun Publikoa edo Nafarroako Ondarea.

Ez denez presako gaia –Nafarroako Gobernuak iragarria ere ez zuten legegintzaldi honetako ekimenen artean– foru lege proiektu hau ez zen garai honetan igorri behar. Zorritzarrez, proiektuak izan dezakeen presa bakarra interes politikoa da, zentzurik okerrenean, hots, interes alderedikoa: hauteskunde aurretik ustez berritzailea eta modernizatzailea den ekimen baten publizitatea

egitea. Interes horren argigarri nabarmena dugu Nafarroako Gobernuak foru lege proiektua onetsi zuenean ez zuela jaso bilkuren ondotik eman ohi duen laburpenean, baizik eta gobernuko bi kidek prentsaurrekoa eman zutela proiektu horren berri emateko.

Nafarroako Parlamentura igorritako espedienteak berak ere erakusten du foru lege proiektua korrika eta presaka prestatu eta onetsi dela, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak zuzenean eskatuta egin dela. Itxura guztien arabera, asmoa da, hauteskundeetan propaganda egiteko erabiltzeaz gain, Gorte Nagusiek baino lehena go onestea gai horri buruzko lege bat, horrela esan ahal izateko Nafarroa eta dituen agintariak aitzindariak eta nabarmen onak direla. Foru lege honen inspirazio iturria, dirudienez, hala denborari nola edukiari dagokionez, Herritarrek administrazio publikoetara modu elektronikoan jotzeari buruzko Lege Proiektua da; proiektu hori 2006ko abenduaren 7an aurkeztu zen Diputatuen Kongresuan eta 2006ko abenduaren 15ean argitaratu zen Gorte Nagusietako Aldizkari Ofizialean.

Lege proiektu hori izapidetzen ari denez –Diputatuen Kongresuan eztabaidatzeko dago oraindik–, ez dena komeni da lasterketan ibiltzea ea nork onetsi lehenago legea, eta bai, aldiz, zuhertasunaren bertutea praktikatu eta, foru erkidegoan arauak onesteari ekin aurretik, Estatuako legea onetsi arte itxarotea. Izan ere, lege proiektu horretako xedapenik gehienak, proiektua arau juridiko bihurtzen denean, oinarrizko legedi izanen dira, Konstituzioren 149.1.18 artikulua eskumen horiek esleitzen baitizkio Estatuari (administrazio publikoen araubideari eta horien funtzionarioen estatutuari buruzko oinarriak, kontuan hartuta oinarriok beti bermatuko dutela herritar guztiek tratu bera izatea administrazio horietan; administrazio-prozedura erkidea, autonomia-erkidegoen berezko antolaketak eratoritzen dituen berezitasunei kalterik egin gabe). Hau da, arau loteslea izanen da Nafarroako administrazio publikoentzat ere.

Ez dirudi zuhurra denik, Nafarroak, oinarrizko legedia azkenean nola geldituko den jakin aurretik, bere lege garapenari ekitea. Egokiagoa dirudi itxaron eta ikustea. Eta horrek ez du esan nahi Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak arlo horretan, hots, bere jardunean eta, bereziki, herritarrekiko harremanetan, ezer egin gabe gelditu behar duenik. Daukagun lege esparruak ematen du nahikoa biderik horretarako, oinarri har baitaitezke bai Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legeko 45. artikulua (Baliabide teknikoak

erabiltzea), bai Sinadura elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legea.

Foru lege proiektuak duen edukiaren zatirik handienak, gainera, ez du lege mailarik izan behar. Xedapen asko, bestalde, beste lege batzuetan ezarritakoaren errepikapena besterik ez dira; horrela, 3. artikuluan, egiten den bakarra da aldarrikatu administrazio prozedura erkidean aldaezinak direla herritarren eskubideak eta betebeharrak, eta, 4. artikuluan, ustez herritarren eskubideak arautzen ari denean bitarteko elektronikoekin dituzten harremanetan, egiten duena da banan-banan errepikatu prozedura erkideari buruzko oinarrizko legedian jasotako eskubideak, behin eta berriro “elektroniko” adjektiboa gehituz. Ez dira gutxi inongo lotura juridikorik sorrarazten ez duten adierazpen programatiko soilak, eta, horrenbestez, formalki baino ez daitezkeenak legetzat hartu. Ez da harrigarria foru lege proiektu honetan beste inongo araurik ez indargabetzea, eta espedientean dagoen oroitidazkian esatea “foru legearen aurreproiektuak ez duela inongo arau aldaketarik proposatzen”. Arau juridikoen ezaugarria bada, onestean, egintza administrazioek ez bezala, ordenamendu juridikoa aldatzen dutela, ondorioa da foru lege proiektu honek eduki juridiko urria duela.

Foru lege proiektua aurkeztu da Foru Hobetzeko 49.1.c) artikulua Nafarroako Foru Komunitateari esleitutako eskumenak balitu bezala oinarri: “administrazio prozeduraren arauak edo, bestela, prozedura ekonomiko-administratiboarenak, zuzenbide substantiboaren edo antolakuntzaren alorrean Nafarroak bere dituen berezitasunetatik heldu direnak”. Bada, arau horien arrastorik ere ez da ageri foru lege proiektuan. Arau orokorrak dira, eta ez dagozkio zuzenbide substantiboaren inongo berezitasuni. 49.1.e) artikuluko eskumenei dagokienez (“Foru Diputazioaren, haren administrazioaren eta haren menpeko ente publikoen araubide juridikoa, administrazio publikoen aitzinean administratuen trataera berdina bermatuz”), ez dira ia jaso foru lege proiektuan, salbu eta 47. artikuluan, non Administrazio Elektronikoaren Batzorde bat aurreikusten baita; baina horretarako ez zen inongo lege baimenik behar, Nafarroako Gobernuak, indarrean dagoen legediarekin, sortu baitezake halakorik.

Foru lege proiektuan, zenbaitetan, erregelamenduz arautu behar liratekeen gaiak arautzen dira. Horrela, ez dago arrazoirik Foru Komunitateko administrazioaren Erregistro Orokor Elektronikoa legez arautzeko; oraingo Erregistro Orokorra erregelamenduz dago arautua (ekainaren 24ko 137/2002 Foru Dekretua). Antzeko zerbait esan

daiteke iragarki ohol elektronikoari buruz ere, betiko iragarki oholak behar izan duen arau bakarra 30/1992 Legean egiten den aipamen orokorra izan baita. Eta, orokorrean, foru lege proiektuan jasotako prozedura- edo antolamendu-gai gehienak erregelamenduz arautu daitezke, oinarrizko legediaren garapen gisa. Kongresuan izapidetzen ari den proiektuak aurreikusten du garapen hori; kasuren batean, garapena eginen duena Estatuko administrazioa izanen dela jasotzen du espresuki.

Laburbilduz, Parlamentura igortzeko une egozia ez izateaz gain, duen edukiagatik ere ez da komenigarria foru lege proiektu hau onestea.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabakia hartzea proposatzen dugu:

Nafarroako Gobernuari itzultzea Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko Foru Lege proiektua.

2. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen du. Hona arrazoiak:

Proiektua legegintza amaieran aurkeztu da, Nafarroako Gobernuaren halako eraso batean; horrela, hainbat lege proiektu aurkeztu ditu batera, eta parlamentu-taldeei sakon aztertzeke aukera kendu die. Legeak kalitate-estandar gutxieneko batekin egitea ezinezkoa da baldin eta 2003ko urritik aurkeztu gabeko lege proiektu guztiak legegintza amaieran aurkezten badira. Ez dago denborarik legegintza lanari aurre egiteko.

Lege proiektuan adierazten denez, "Nafarroako gizartea garapen sozioekonomiko aurreratuenetakoa da, bai Espainian bai Europar Batasunean. Indartsu sartu dira gurean informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. Gaur egun, gizarte hori gizarte informatizatua dugu, tresna elektronikoak normaltasunez eta ohikotasunez erabiltzen dituen herritarren eta eragile sozial eta ekonomikoaren arteko harreman nagusietan." Zalantza handiak ditugu Nafarroako herritarrek zenbateraino erabiltzen dituzten ICTak (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak). Interneten erabilera ez da unibertsala, eta, gure erkidegoan, zenbait talderen arteko eten digitala handia da. Lege proiektu honen aurretik, gure ustetan, informazioaren

gizartea zabaltzeko eta sustatzeko hainbat programa etengabeko egin beharra dago Nafarroako gizarte-maila guztietan. Lehenbizi, ICTak erabilera eta ezarpen zabala behar dute herritarren artean, eta, gero, administrazio elektronikoa erabiltzeko esparru bat ezarri beharko da. Bitartean, biak batera behar ditugu, bai egungo sistemak bai administrazio-jardun elektronikoa arloko esperimentazioa nahiz saio pilotuak.

Esate baterako, 16. artikulua aipa dezakegu, iragarki ohol elektronikoa arautzen duena. Herritar guztiek, uneotan, aukera berak al dituzte iragarki ohol horretara jotzeko? Legean argi gelditzen al da sistema biak batera izango ote ditugun, hau da, gaur egungo sistema eta proposatutako sistema elektronikoa? Gauza bat da legezko balioa ematea iragarki ohol elektronikoari, eta beste bat, oso diferentea, herritarrei informazioa emateko beti erabili diren moduak ordeztzea.

Nafarroako Gobernuak ICTen erabilera eta eskuragarritasuna denengana zabaltzeko betebeharra du, eta, gero, erregelamenduz sartu beharko ditu –ez, nahitaez, foru lege– administrazio elektronikoa; bitartean, bi bideak aukerakoa izan behar dute.

Lege proiektu hau presaka aurkeztu da eta uneotan ez da beharrezkoa; gainera, oinarrizko araudia ere onesteko dago. Horregatik guztiagatik, proiektua gobernuari itzul dakion eskatzen dugu.

3. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko Foru Lege proiektua gobernuari itzul dakion eskatzen duena.

Zioak: Eusko Alkartasuna parlamentu taldean harriduraz dakusagu nola Nafarroako Gobernuak legegintza honetako azken bi hilabeteotan lau foru lege proiektu aurkeztu dituen, batzuk garrantzi handikoak, hala nola Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa, ondareari buruzkoa eta abar.

Lege proiektu horien guztien sakoneko eztabaida egiteko denborarik ez izateak eta eztabaida horretarako nahitaezkoa den prestaketa-lanak osoko zuzenketa bat aurkeztera behartzen gaituzte, proiektu horiek Nafarroako Gobernuari itzultzea proposatzeko, eta halatan hurrengo legegintzaldian eztabaida lasai eta patxadatsua egin ahal izateko, behar adina denbora izanik Legebiltzar hone-

tako talde guztiok lege proiektu horiek hobetzeko asmoz ekarpenak egin ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, azaldutako arrazoietan oinarri harturik, Foru Legebiltzarreko Osoko Bilkurari proposatzen diogu Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzeko erabakia hartzea.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETEAK

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 1. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Idazketa sinplifikatzea. 2. idatz-zatiak 1. idatz-zatiak esandakoa errepikatzen du, eta ez du ezer gehitzen, adierazpen orokor, hanpatu eta eragin juridiko zehaztugabeen sail bat baita. Kasuren batean, idatz-zatiaren edukiak ez du batere loturarik proiektuaren gainerako edukiarekin. Adibidez, c) letran esaten da legearen helburua dela bulego telematiko integratuak sortzea, eta, gero, ez da gai horri buruzko beste aipamenik egiten.

2. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

1. artikulua. 2. B. Herritarrei dagokienez

e) letra gehitzea:

“e) Administrazio elektronikoa herritar guztiei irekia dagoenez hizkuntza-irizpide teknikoak ezarriko dira hiritarren bazterketa gerta ez dadin.”

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“2. artikulua. Prozedura elektronikoen progresibitatea eta gaikuntza.

1. Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde publikoen baliabide elektronikoa pixkanaka ezarriko dira; alde aurretik, kasuan kasuko prozedura administratibo elektronikoa onetsi beharko dira eta baliabide elektronikoa horiek aplikatzeko egokiak diren xedapenak emanen.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen den onespena gaiaren eskumena duen kontseilariak edo, prozedurak departamentu bat baino gehiago ukitzen duenean, lehendakaritzako kontseilari titularrak emaniko foru agindu bidez egiten da, bitarteko elektronikoz abian jarri gogo den prozedura administratibo elektronikoa bakoitzeko.

3. Prozedura bakoitza onetsi aurretik, aginduzkoa izanen da antolaketa administratiboaren eta informazio sistemen gaitako eskumena duen unitateak eginiko txosten teknikoak, sistema osoaren segurtasuna, datuen funtzionamendua eta eskualdagarritasuna bermatuko dituen, bai eta igortzen den informazioaren benetakotasuna, konfidentzialtasuna, integritatea, eskuragarritasuna eta kontserbazioa ere.

4. Prozeduraren onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, aukeran, Nafarroako Gobernuaren interneteko web atarian. Egintza horrekin batera, bertan sartzeko behar diren espezifikazio teknikoak jakinaraziko dira, jabetza industrial eta intelektualeko eskubideak errespetatuz.

5. Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatu ahalmenez baliatzeko tresna huts gisa erabiltzen diren programa eta aplikazioen onspen edo erabileran, hau da, programa edo aplikazio horiek erabaki administratiboaren informazio-tratamendu osagarriak edo prestakizunak egiteko erabiltzen direnean, administrazioaren erabakien edukian zuzeneko eraginik izan gabe.”

Zioak: Zuzenketa teknikoak. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, “prozedura administratibo elektronikoa”, baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tra-

mitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 3. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Idazketa sinplifikatzea. Arauak duen edukia da ez da batere beharrezkoa; izan ere, hor esaten dena da esatea bezala proiektuan araututakoak ez diela kalterik eginen Konstituzioan aitortutako oinarritzko eskubideei. Nafarroak ez du eskumenik prozedura administratibo erkideari buruz Estatuko oinarritzko legedian ezarritako eskubideak aldatzeko. Esan gabe doa eskubide horiek ez direla ukituta geldituko.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

5. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 4. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Idazketa sinplifikatzea. Arauak duen eduki hori ez da beharrezkoa. Izan ere, ez du Estatuko oinarritzko legedian gaur egun aitortuta dauden eskubideez gain besterik aitortzen; horiei izaera elektronikoa baino ez die gehitzen. Bestalde, eskubide horiek bitarteko elektronikoen bidezko prozeduren arloan dituzten berezitasunak Estatuko oinarritzko legediaren arlokoak dira.

6. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

4. artikulua. Herritarren eskubideak bitarteko elektronikoekin dituzten harremanetan.

b) letran esaldi hau gehitu nahi dugu:

“Eskubide hori bermatzeko Administrazioak agiriak eta prozedurak bi hizkuntzetan egin ahal izateko behar diren baliabideak herritarren eskura jarriko ditu.”

7. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluan beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

“p) Foru Komunitateko administrazioak jadanik bere esku dituen datu eta dokumentuak ez aurkeztu behar izatekoa. Administrazioak bitarteko elektronikoen erabiliko ditu informazio hori lortzeko; betiere, datu pertsonalak badira, interesdunek espresuki adierazi beharko dute ados daudela edo lege batek eman beharko du horretarako bidea.”

Zioak: Eskubide hori dagoeneko jasota dago 30/1992 Legeko 35. artikuluan, eta sartu beharra dago eskubideen zerrendan, hala nola sartu diren 30/1992 Legeko 35. artikuluko beste eskubide batzuk. Eskubide hori, bestalde, sartuta dago Herritarrek administrazio publikoetara modu elektronikoen jotzeari buruzko Lege Proiektuan (6. artikulua), eta arau hori oinarritzko araudia da.

8. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

4. artikulua:

Letra hau gehitu nahi dugu (pasarte hau Espainako Administrazio elektronikoen lege proiektutik hartu dut): Herritarrek ondokorako eskubidea dute:

“p) baliabide elektronikoen emandako zerbitzu publikoak kalitatezkoak izateko; horretarako, jarraipen eta ebaluazio sistemak ezarriko dira, eta aldizkako azterlanak egiten dira zerbitzu horiei buruzko herritarren eskaria identifikatzeko.”

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

9. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 5. artikuluko 2. eta 8. idatz-zatiak kentzeko zuzenketa, bai eta 6. eta 7. artikulua ere.

Zioak: Idazketa sinplifikatzea. Kentzea proposatzen dugun edukia erregelamenduz arautzekoa da eta ez legean. Ez du zentzurik Foru Komunitateko administrazioaren Erregistro Orokorra foru dekretuz araututa egotea, eta, aldiz, horren bertsio elektronikoa legez horren zehatz arautzea.

10. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatian, "...eskabide, idazki, kontsulta eta komunikazioak jaso..." ordeztu eta hau jartzea proposatzen dugu: "...edozein eskabide, idazki, kontsulta eta komunikazio jaso..." .

Zioak: Arauan argi gelditu behar du erregistro horrek eskabide, idazki, kontsulta eta komunikazioak guztiak onartuko dituela, 6. artikuluan jasotako zehazpenak gorabehera. Era berean, proposatzen den testua bat dator Herritarrek administrazio publikoetara modu elektronikoa jotzeari buruzko Lege Proiektuko 24.3 artikuluan ezarritakoarekin, eta lege hori oinarritzeko araudia da.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

11. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

6. artikulua. 5. puntua:

"Administrazioak jaso duen dokumentu baten formatoa aldatu ahalko du... baina agiriaren funtsezko edukia aldatu gabe"

"funtsezko" hitza kentzea proposatzen dugu

Zioak: Nire ustez hobe da funtsezko hitza kentzea. Gauza bat da formatoa aldatzea eta beste bat edukiaren aldaketa onartzea, Administrazioaren esku egongo baitlitzateke funtsezko edukia zein den erabakitzea. 21. artikuluko 2. puntuan, artxiboa, gauza bera egitea proposatzen dut.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

12. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 5. idatz-zatia kentzeko zuzenketa

Zioak: Unitate administratiboak bertatik kendu ditugu garrantzizkoak ez diren egintza, txosten, ohar eta bestelako guztiak, eta adierazpen edo iritzirik pertsonalak edo esku-hartzaileenak..." Berriz administrazioaren esku uzten da aurkeztutako dokumentazioan zer den garrantzizkoa eta zer den iritzirik pertsonala. Hemen bi aukera ikusten ditut: edo puntu osoa kentzen da edo berme bat sartzen da, adibidez, Administrazioak interesatuari zer kendu duen jakinaraziko diola, adostasuna adierazteko epe bat emanez.

13. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izan den du:

"8. artikulua. Tramite egintzak eta txostenak.

1. Unitate administratiboek bitarteko elektronikoko egokiak erabiliz eskatu, eman eta jakinaraziko dizkie elkarri administrazio prozeduraren tramite egintzak eta, bidezkoa denean, interesdunari ere egintza horiek hala jakinaraziko zaizkio, bitarteko horiek erabiltzeko moduan badira betiere.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakotik salbuetsiko dira interesdunen izapide-egintzak eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren edo haren erakunde publikoen menpe ez dauden organo kolegiatuek aginduz eman beharreko irizpen, txosten eta egintzak, horiek bitarteko elektronikoko egokirik ez badute edo egintza ohiko moduan betetzea erabakitzen badute. Kasu horretan, prozedura tramitatzeko eskumena duen unitate administratiboak txostena edo idatzizko egintza elektro-

nikoki transkribatuz edo kopiatuz sartuko du prozeduran.

3. Tramite egintzak batasunaren eta denbora hurrenkeraren irizpideen arabera sartu behar dira prozeduran, eta bide eman beharko da administrazioaren zerbitzuko langileek, tramitatzeaz ardurazten direnek, eta interesdunak kontsulta dezaten.

4. Izapide-egintza bete eta funtzionario eskudunak hura elektronikoki izenpetu ondoren, berme elektronikoki bat ezarriko da, hura deuseztatzea edo haren edukia aldatzea eragozteko.

5. Prozedurarako eskumena duen unitate administratiboak bertatik kenduko ditu garrantzizkoak ez diren agiri guztiak, gaiarekin zerikusi zuzenik ez dutenak edo aplikatzekoa den araudiak eskatuta-koak ez direnak.”

Zioak: Zuzenketa teknikoa. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, “prozedura administratibo elektronikokiak”, baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

Bestalde ez da zuzena, proiektuak egiten duen bezala, esku-hartzaileen iritzi pertsonalak biltzen dituzten agiriak kentzea. Txosten bat ez da besterik; alegia, egin duenak gai jakin bati buruz duen iritziaren adierazpena.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

14. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“9. artikulua. Ziurtagiri administratibo elektronikokiak.

1. Paperezko ziurtagiri administratiboaren ordez, baliabide elektronikoen bidezko ziurtagiriak edo datu-transmisioak erabili ahaliko dira. Lehenbizikoak artikulua honetan xedatutakoak zuzenduko ditu eta bigarrenak, berriz, hurrengoan xedatutakoak.

2. Baliabide elektronikoen bidezko ziurtagiriak ziurtagiriaren xede diren datuak eta horiek emateko eskumena duen agintariaren sinadura elektronikoki jasoko ditu.

3. Baliabide elektronikoen bidezko ziurtagiri bat honela emanen da:

a) Interesdunak eskatuta; bidali eginen zaio edo haren eskura utzi, eskatu duen organoari igor diezaion.

b) Organo eskatzaileak eskatuta, interesdunaren ekimenez edo organo eskatzailearen beraren ekimenez, betiere interesdunaren baimen espresua badu, atzipena lege batek baimendua denean izan ezik. Kasu horretan, ziurtagiriaren eskaeran zer izapide edo prozeduratarako nahi den zehaztuko da, eta jasota geratu beharko da interesdunaren baimen espresua badela edo salbuesten duen araua.

4. Prozedura izapidetzen duen organoak ziurtagiri administratiboa eska dezan interesdunak emandako baimena prozedurari hasiera emateko eskabidean edo ondorengo komunikazio orotan agerrarazi beharko da, eta eskabidea aurkeztu izanaren agiria ziurtagiria aurkezteko betebeharra bete izanaren egiaztagiritzat hartuko da.

5. Baliabide elektronikoen bidezko ziurtagiriak paperezko euskarrian emandako onorio berberak izanen dituzte. Horretarako, edukia paperezko euskarrian inprimatzeko modukoa izan beharko da, eta bertan eskuzko sinaduraren ordez elektronikoki sortutako egiaztatze kode bat ezarriko da, benetakotasuna frogatzeko aukera emanen duena organo edo erakunde igorlearen artxiboetan bitarteko telematikoekin sartuta.

6. Baliabide elektronikoen bidezko ziurtagiriak legez edo erregelamenduz horretarako gaitutako pertsonak emanen dituzte edo departamentu edo erakunde publiko bakoitzak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egintza administratibo baten bidez izendatzen duten unitate organikoek. Bigarren kasu horretan inguruabar hori emandako ziurtagiri bakoitzean agerrarazi beharko da.”

Zioak: Zuzenketa teknikoa. Kontua ez da “administrazio prozedura elektronikokiak” izeneko kategoria asmatzea, baizik eta administrazio prozedurak bitarteko elektronikoen bidez nola izapidetu behar diren arautzea, eta, era berean, ez da zuzena “ziurtagiri administratibo elektronikokiak” aipatzea, kontzeptu berri bat balitz bezala, baliabide elektronikoen bidezko ziurtagiriez besterik ez baikara ari.

11. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

15. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 11. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gai hori Estatuko oinarrizko legediari dagokio, eta proiektuaren edukiak ez dio inongo ekarpenik egiten.

IV. KAPITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

16. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko IV. kapituluak ("Jakinarazpen administratibo elektronikoa", 12. artikulutik 16.era bitartek) kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kapitulu honetan jasotakoak, betiere, Estatuak administrazio prozedura erkideari buruz edo baliabide elektronikoen erabilerari buruz eman beharreko oinarrizko legediaren arlokoak dira. Hain zuzen ere, Estatuan indarrean diren xedapen asko errepikatzen ditu. Ez da zentzuzkoa dagoneko araudi horretan jasota dagoena errepikatzea, eta araudi horretatik bereiztea arriskutsua da, eskumen gatazka sor baitaiteke. Administrazio prozeduran bitarteko elektronikoa erabiltzeari buruz Estatuan oinarrizko araudia onetsi arte itxarotea da arrazoizkoa, eta, gero, beharrezkoa den gai berezietan, erregelamenduz garatzea araudi hori. Ez du zentzurik iragarki ohol elektronikoa bat lege arautzea. Betiko iragarki oholak ez du erregelamendurik ere behar izan; Estatuako legedian esaten denarekin nahikoa izan du.

13. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

17. ZUZENKETA

ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluko 2. idatz-zatian gehiketa egiteko zuzenketa.

Esaldi hau gehitzea proposatzen da:

"Jakinarazpen horiek interesdunak erabilitako Nafarroako hizkuntzan eginen dira."

16. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

18. ZUZENKETA

ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua. Iragarki ohol elektronikoa.

Artikulua hau kentzea proposatzen dugu:

Zioak: Artikulu honetan planteatzen denak kezka sortzen dit gure gizartean baliabide elektronikoen analfabetismoa oso handia delako. Interneteko erabilera ez da unibertsala eta honen ondorioz herritarrak baztertzeko arriskua dago. Gauza bat da iragarki ohol elektronikoen balio legala finkatzea eta beste bat informazioa eskaintzeko beste baliabideak ordezkatzeko. Adibideak:

1. idatz-zatian "jakinarazpena ezarri ahalko dute prozedura bateko interesdunak ezezagunak direnean" eta 3. idatz-zatian esaten da jakinarazpena horrela egiteak "ordezkatu eginen du administrazioak duen betebeharra, interesdunari udaleko ediktuen oholean jakinarazpen pertsonala egitekoa." Honela, interesdunari egoeraren berri edukitzeko aukera murrizten zaie.

5. idatz-zatian iragarki ohol elektronikoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeak duen balio bera ematen zaio baina ez da argi uzten egintzak eta xedapenak bietan argitaratu behar diren eta baliabide elektronikoen erabilera orokorra lortu arte bietan argitaratu beharko litzateke dena.

17. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

19. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 17. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra aldatzea, halako moldez non "prozedura administratibo elektronikoa" beharrean, "bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratibo" ager dadin.

Zioak: Zuzenketa teknikoa. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, "prozedura administratibo elektronikoak", baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

20. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"4. Pertsona fisikoek, betiere, nortasun agiriarekin batera doazen sinadura elektronikoko sistema guztiak erabili ahalko ditzute"

Zioak: Egokia da Nafarroako herritar guztiek jakin dezaten nortasun agiria identifikatzeko erabili ahal izanen dutela Nafarroako Foru Komunitatearekin dituzten harreman elektronikoetan. Era berean, bat dator Herritarrek administrazio publikoetara modu elektronikoan jotzeari buruzko Lege proiektuko 14 artikuluan ezarritakoarekin, eta lege hori oinarritzeko araudia da.

19. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

21. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 19. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non "bere eskumeneko prozedura administratibo elektroniko" beharrean, "bitarteko elektronikoen bidezko bere eskumeneko prozedura administratibo" ager dadin, eta "prozedura administratibo elektroniko" beharrean, berriz, "bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratibo"

Zioak: Zuzenketa teknikoa. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, "prozedura administratibo elektronikoak", baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira

eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

22. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

22. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 22. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

"22. artikulua. Pixkanakako ezarpena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak pixkanaka ezarriko du administrazio prozeduren tramitazio telematikoa.

2. Prozedurak kudeatzeko baliabide elektronikoak aplikatu aurretik, haien ikuspuntu funtzionaltik birdiseinatu eta errazteko azterketa bat egingen da; azterketa horretan, bereziki ondoko alderdiak hartuko dira aintzat:

a) Herritarrei eskatutako dokumentazioa kentzea edo gutxitzea, haien ordezkariak erabiliz, datu edo ziurtagiriak eskualdatuz edo tramitazioaren bukaeran haien ekarpena erregulatuz.

b) Parte-hartzerako, gardentasunerako eta informaziorako baliabideak eta tresnak aurreikus-tea.

c) Erantzuteko epeak eta denborak gutxitzea.

d) Lan-zamen banaketa eta barneko komunikazioak arrazionalizatzea."

Zioak: Ez du zentzurik administrazio prozedurak bi kapitulutan bereiztea, alde batek eskaturik hasi diren edo ofizioz hasi diren; izan ere, foru lege honi dagokionez, ez dago funtsezko alderik prozedura batzuen eta besteen artean. Bestalde, prozedurak arrazionalizatzea izan behar du helburu.

23. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

23. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 23. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikulu honetan jasotakoak, betiere, Estatuak administrazio prozedura erkideari buruz edo baliabide elektronikoen erabilerari buruz eman beharreko oinarrizko legediaren arlokoak dira. Ez da zentzuzkoa dagoeneko araudi horretan jasota dagoena errepikatzea, eta araudi horretatik bereiztea arriskutsua da, eskumen gatazka sor baitaiteke. Administrazio prozeduran bitarteko elektronikoen erabiltzeari buruz Estatuan oinarrizko araudia onetsi arte itxarotea da arrazoizkoa, eta, gero, beharrezkoa den gai berezietan, erregelamenduz garatzea araudi hori.

24. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

24. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 24. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non “prozedura administratibo elektronikoa” beharrez, “bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratibo” ager dadin.

Zioak: Zuzenketa teknikoak. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, “prozedura administratibo elektronikoa”, baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

25. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikulua. Hasteko eskaerak.

3. idatz-zatian esaldi hau gehitzea proposatzen da:

“Eskabide normalizatu horiek Nafarroako bi hizkuntzetan eskainiko dira.”

Lehen xedapen iragankorra:

Ez dira a), b) eta c) puntuak agertzen, beraz, aldatu orain daudenak eta hurrenkera berriro egin: a-tik i-ra.

26. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

26. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 26. artikuluen izenburua eta testua aldatzea, halako moldez non “prozedura administratibo elektronikoa” beharrez, “bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratibo” ager dadin.

Zioak: Zuzenketa teknikoak. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, “prozedura administratibo elektronikoa”, baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

28. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

27. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 28. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non “prozedura administratibo elektronikoa” beharrez, “bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratibo” ager dadin.

Zioak: Zuzenketa teknikoak. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, “prozedura administratibo elektronikoa”, baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

33. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

28. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non “prozedura administratibo normalizatu elektronikoa” beharrez, “bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratibo normalizatu” ager dadin.

Zioak: Zuzenketa teknikoa. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, “prozedura administratibo elektronikoa”, baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

34. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

29. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 34. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non “prozedura administratibo normalizatu elektronikoa” beharrez, “bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratibo normalizatu” ager dadin.

Zioak: Zuzenketa teknikoa. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, “prozedura administratibo elektronikoa”, baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

35. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

30. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 35. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non “prozedura administratibo elektronikoa” beharrez, “bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratibo” ager dadin.

Zioak: Zuzenketa teknikoa. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, “prozedura administratibo elektronikoa”, baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

36. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

31. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 36. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“36. bis artikulua. Prozeduretako hizkuntza.

1. Baliabide elektronikoen bidezko prozedura administratiboak Nafarroako Foru Komunitateko bi hizkuntza ofizialetan tramitatu ahalko dira, interesdunek helbidea non duten eta organo eskudunaren egoitza non dagoen kontuan hartu gabe.

2. Herritarrak bide elektronikoa erabiliz bi hizkuntza horietan zuzendu ahalko zaizkio Foru Komunitateko administrazioari.

3. Interesdunei zuzendutako komunikazio eta jakinarazpenak gaztelaniaz egiten dira, salbu eta interesdunek euskaraz edo elebitan hasitako prozedurei dagozkienak; izan ere, horiek elebitan idatziko dira. Edozein kasutan eta edozein prozeduratan, interesdunek zuzentzen zaizkien jakinarazpen eta komunikazioak elebitan edo hizkuntza bakarrez hartu nahi dituztela jakinarazten badute, interesdunek hautaturiko moduari lotuko zaio administrazioa.

4. Baliabide elektronikoen bidezko prozedura administratiboetan erabiltzeko ezartzen diren inprimaki, eredu eta formularioak bi hizkuntza ofiziale-tan idatzita egonen dira.

5. Baliabide elektronikoen bidez izapidetutako prozedura administratiboen barruan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak beste administrazio publiko batzuekin erabili beharreko jakinarazpen eta komunikazioak gaztelaniaz idatziko dira, euskaraz edo elebitan hasitako prozedureta-koak ez badira; izan ere, horrelakoetan elebitan idatziko dira. Hala eta guztiz ere, administrazio publiko horiek adierazten badute, organo eskudunaren bitartez, Foru Komunitateko administrazioak haiei zuzendutako jakinarazpen eta komunikazioak elebitan edo euskaraz idatzita jaso nahi dituztela, oro har, hautatutako bideari lotuko zaio.”

Zioak: Prozeduraren hizkuntza zehatz erregulaztea, zeren eta xedapen indardunak ezin baitira aplikatu, administrazio elektronikoarekin bateragarria ez den lurralde irizpide baten arabera-koak direlako.

37. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

32. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 37. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non “prozedura administratibo elektronik” beharrean, “bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratibo” ager dadin.

Zioak: Zuzenketa tekniko. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, “prozedura administratibo elektronik” baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

39. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

33. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 39. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea, halako moldez non “prozedura administratibo elektronik” beharrean, “bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratibo” ager dadin.

Zioak: Zuzenketa tekniko. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, “prozedura administratibo elektronik” baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

40. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

34. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 40. artikuluko 3. lerrokada aldatzea, halako moldez non “prozedura administratibo elektronik” beharrean, “bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratibo” ager dadin.

Zioak: Zuzenketa tekniko. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, “prozedura administratibo elektronik” baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

42. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

35. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

42. artikuluko j) letran hau gehitzea proposatzen da:

“Software librea eta neutraltasun teknologikoa bermatzeko neurriak hartuko ditu Nafarroako Gobernuak.”

36. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 42. artikularen 1. idatz-zatiari k bis) letra gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“k bis) Nafarroako errepideei buruzko legediak aipatzen duen Nafarroako errepideen mapa ofiziala.”

Zioak: Nafarroako errepideei buruzko foru lege berriak ezarritakoari egokitzea.

37. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 42. artikuluko 1. idatz-zatiaren n) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du:

“n) Interes orokorreko zatik jo edo legez edo erregelamenduz exijitzen diren bestelako informazioak.

Zioak: Hondarreko klausula osatzea.

38. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 42. artikuluan idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Nafarroako Gobernuaren web zerbitzuen ataria Nafarroako Foru Komunitateko bi hizkuntza ofizialetan egonen da. Era berean, interes orokorrekoa dela jotzen bada, beste hizkuntza batzuetan ere emanen da informazioa.”

Zioak: Hizkuntza araudian horrelakorik ez denez jasotzen, araudia osatzea.

39. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 42. artikuluan idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Nafarroako Gobernuaren web zerbitzuen ataria herritar guztientzat, eta bereziki ezgaitasun motaren bat dutenentzat, ahal den atzigarriena izateko moduan diseinatuko da. Bertan jasotako informazio guztiak beren data edo azken gaurko-tzearen data eramanen dute.”

Zioak: Araudia osatzea.

48. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

40. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 48. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Arau honen edukia ez dagokio lege mailako arau bati.

49. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

41. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 49. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

49. artikulua. Prestakuntza.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak behar diren neurriak jarriko ditu bere zerbitzuko langileen prestakuntza sustatzeko, hain zuzen ere bi arlotan: informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera eta, bereziki, baliabide elektronikoenkin prozedura administratiboak kudeatzea.

Zioak: Idazketa sinplifikatzea.

XEDAPENEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

42. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dio inolako ekarpenik egiten Nafarroako arartekoari buruzko Foru Legean ezarritakoari.

43. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dio inolako ekarpenik egiten datuak babesteari buruzko legeetan ezarritakoari.

44. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Datu pertsonalen babesa. 2. idatz-zatia

“Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez sustatu ahalko du Nafarroako Datu Pertsonalak Babesteko Agentzia sortzea”

Proposamena da “sustatu ahalko du” kentzea eta bere ordez “sustatuko du” jartzea.

45. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa.

46. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa, eta ez dio inolako berritasunik ekartzen Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko Foru Legean administrazioen arteko lankidetzari buruz ezarritakoari.

47. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria. Sozietate eta fundazio publikoak.

Foru Komunitateko administrazioari eta haren erakunde publikoei lotutako sozietate eta fundazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte, honakoak egiteko, foru lege honen printzipioei jarraituz:

a) Herritarrekiko baliabide elektronikoaren bidezko komunikazioa ahalbidetzea.

b) Kasua bada, baliabide elektronikoaren bidezko zerbitzuak ahalbidetzea.

c) Beren zerbitzu eta jardueri buruzko informazioa ematea web atari baten bidez”

Zioak: Erregulazioa osatzea sozietate eta fundazio publikoen aipamena eginez; izan ere, horiek prozedura administratiboak izapidetzen ez badiutze ere, baliabide elektronikoetara moldatzeko moduko zerbitzu publikoak ematen dituzte.

48. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria. Herritarrek baliabide elektronikoak erabili ahal izatea.

1. Foru Komunitateko administrazioak, kasua bada toki entitateen laguntzarekin, bermatuko du herritar guztiek doako sarbidea izatea Foru Komu-

nitateko administrazioaren interneteko web atarira, eta, oro har, administrazio publikoen komunikaziorako edozein baliabide elektronikotara, jendeari laguntza emateko bulegoetan, gizarte etxeetan, kultur etxeetan, liburutegietan edo antzeko beste zerbitzu publiko batzuetan. Egoitza horiek laguntza eta orientabidea eskaini beharko dute baliabide elektronikoen erabilerari buruz, bertako langileen bitartez nahiz tresna teknikoei erantsitako sistemen bitartez.

2. Foru Komunitateko administrazioak telefono bidezko laguntza zerbitzua ezarriko du, doakoa, herritarrek foru lege honetan araututako administrazio elektronikoen informazio eta zerbitzuak erabili ahal izan ditzaten.

Zioak: Herritar guztiak administrazio elektronikoz baliatu ahal izatea.

49. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria. Telelana arautzea.

Nafarroako Gobernuak, langileen ordezkaritza organoei kontsulta egin ondoren, erregelamenduz arautuko ditu Foru Komunitateko administrazioan eta haren erakunde publikoetan telelanaz baliatze-ko baldintzak.

Zioak: Herritar guztiak administrazio elektronikoz baliatu ahal izatea.

50. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Bigarren xedapen iragankorra. Bitarteko elektronikoen bidezko egungo prozedura administratiboak.

Ez da beharrezkoa izanen foru lege honen 2. artikuluan aipatzen den gaikuntza, ez eta onetsi edo argitaratzea foru lege honek indarra hartzean onetsirik dauden bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratiboen bertsio berriak edo aldaketak, egiten dituzten informazio tratamendu-

en emaitzen funtsari eragin ahal dion aldaketarik gertatu ez bada.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak edo haren erakunde publikoek erabilitako bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratiboak foru lege honetan jasotako arauetara egokitu beharko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik urtebeteko epean.

Zioak: Zuzenketa teknikoak. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, “prozedura administratibo elektronikoa”, baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

51. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Seigarren xedapen gehigarria.

4. artikuluan jasotako herritarren eskubide guztiak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren prozedura eta jarduera guztietarako erabili ahalko dira 2009ko abenduaren 31tik aurrera.”

Zioak: Zuzenketa helburua da Nafarroako herritarrek baliatu ahal izatea beren eskubideak. Herritarrek administrazio publikotara modu elektronikoa jotzeari buruzko Lege proiektuan jasotako epean, beste autonomia erkidego batzuetan gertatuko den moduan. Hori bateragarria da foru lege proiektuko hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin, non lau urteko epea ezartzen baita prozedura administratiboak informatizatzeke; izan ere, 4. artikuluan aitortutako eskubideak baliatu daitezke, nahiz eta prozedura ez gauzatu bide elektronikotik.

**TITULUARI ETA IZENBURUEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

52. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Izenburua aldatzeko zuzenketa.

Foru legearen izenburuak testu hau izanen du:

“Administrazio elektronikoari buruzko Foru Legea”

Zioak: Proiektuaren izenburua sinplifikatzea, luzeegia baita.

53. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko II. kapituluaren izenburua (“Dokumentuen aurkezpena eta irteera. Erregistro orokor elektronikoa”) kendu eta duen edukia I. kapituluaren baitan sartzeko zuzenketa.

Zioak: Idazketa sinplifikatzea.

54. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

VII. kapituluaren izenburua aldatzeko zuzenketa. “Prozedura administratibo elektronikoa alde batek eskaturik” beharrean, izenburua honakoa izanen da: “Prozedura administratiboa bitarteko elektronikoen bidez”.

Zioak: Zuzenketa teknikoak. Kontua ez da kategoria berri bat sortzea, hau da, “prozedura administratibo elektronikoa”, baizik eta prozedura administratiboak bitarteko elektronikoen bidez tramitatzearen gaia arautzea. Prozedurak, funtsean, berak dira; aldatzen den bakarra euskarriak dira eta transmisiorako eta komunikaziorako baliabideak.

Bestalde ez du zentzurik administrazio prozedurak bi kapitulutik bereiztea, alde batek eskaturik hasi diren edo ofizioz hasi diren; izan ere, foru lege honi dagokionez, ez dago funtsezko alderik prozedura batzuen eta besteen artean.

55. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko II. kapituluaren izenburua (“Ofizioz hasitako prozedurak”) kendu eta dituen artikulua aurreko kapituluaren baitan sartzeko zuzenketa.

Zioak: Ez du zentzurik administrazio prozedura bi kapitulutik bereiztea, alde batek eskaturik hasi diren edo ofizioz hasi diren; izan ere, foru lege honi dagokionez, ez dago funtsezko alderik prozedura batzuen eta besteen artean.

56. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Honako izenburua izanen du: “Bitarteko elektronikoen bidezko prozedura administratiboak ezartzeko epeak”.

Zioak: Daukan edukirako egokiagoa da.

ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

57. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

9. pasarteari honako hau erantsi nahi diogu:

“Administrazio elektronikoa erabiltzerakoan hizkuntza trataerak berebiziko garrantzia du. Horregatik, Lege honen garapenean herritarrak hautatutako Nafarroako hizkuntza erabiltzeko eskubidea bermatuko da Administrazioarekiko komunikazio elektronikoa.”

Foru Lege proiektua, artxiboei eta dokumentuei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, artxiboei eta dokumentuei buruz Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2007ko otsailaren 14ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Artxiboei eta dokumentuei buruzko Foru Lege proiektua gobernuari itzul dakion eskatzen duena.

Zioak: Parlamentu-talde honen iritziz, ez da egokia Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu hau Nafarroako Parlamentura igortzea; batetik, gertatu den uneagatik eta, bestetik, duen edukia-gatik.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldea ez dago Nafarroako dokumentu ondare baliotsuaren kontserbazioa eta baldintzak hobetuko dituen foru lege proiektu bat eztabaidatzearen aurka. Hala ere, gure ustez orain ez da une egokia horrelako proiektu bat aurkezteko; izan ere, legegintzaldia bukatzeko denbora urriegia gelditzen da foru lege proiektu bat behar den gutxieneko zorrotasunarekin eztabaidatzeko. Horretaz gain, gure iritziz, heldu den maiatzaren 27ko hauteskundeetatik aterako den Parlamentu berriak erabaki beharko du nolakoa izanen den Nafarroak behar duen Artxiboei eta dokumentuei buruzko Foru legea.

Uste dugu aipatu foru lege proiektua ez dela presakoa; izan ere, 2005eko azaroan onetsitako Nafarroako kultur ondareari buruzko Foru Legearen III. kapituluaren 70. artikulutik 79. enera, Nafarroako dokumentu ondarea arautzen da, eta haren erabilera eta kontserbazioa bermatzen dira.

2. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artxibo eta dokumentuei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Artxibo eta dokumentuei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen du.

Zioak: Proiektua legegintza amaieran aurkeztu da, Nafarroako Gobernuaren halako eraso batean; horrela, hainbat lege proiektu aurkeztu ditu batera, eta parlamentu-taldee sakon aztertze aukera kendu die. Legeak kalitate-estandar gutxieneko batekin egitea ezinezkoa da baldin eta 2003ko urritik aurkeztu gabeko lege proiektu guztiak legegintza amaieran aurkeztzen badira. Ez dago denborarik legegintza lanari aurre egiteko.

Foru lege proiektuak ez du bermatzen herritarrek duten eskubidea, dokumentazioa sortzen denetik artxiboan gorde arte eskuragarri izateko; betiere, jakina, intimitaterako eskubidearen legeko xedapenak errespetatuz. Ez da nahikoa proiektuaren testuan ahalbidetzeari eta laguntzeari buruz hitz egitea. Eskubide hori bermatu egin behar da.

Proiektuan ez da behar bezala islatzen erakunde publikoen dokumentazioak, pribatu bihurtuz gero, titulartasun publikoari eutsiko dion bermea.

Foru lege proiektuan, titulartasun publikoko dokumentuei buruz ari denean, ez dira aipatzen nazioarteko erakunde publikoetako organoek, zehazki Europakoek, sortutako dokumentuak. Gure ustez, ezaugarri horiek dituen lege proiektu bat etorkizuneko irizpideekin egin behar da eta, zentzu horretan, ezin dira alde batera utzi Europar Batasuna eta haren erakundeak.

Foru lege proiektu horretan ez dago jasota administrazio publikoek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak aplikatzearen arloan proiektuak bultzatu behar dituztela dokumentuen kudeaketa, zaintza, zabalkuntza eta eskuragarritasuna ahalbidetzeko asmoz.

Toki entitateen artxibo sistemei buruzko atalean, entitate horiek Nafarroako Artxibo Sistemarekiko lotura dela-eta dituzten betebeharrak aipatzen dira. Hala ere, ez da ezer esaten toki entitateei

finantzazioa bermatzeari buruz, haien menpeko artxiboen kudeaketa bermatze aldera bitartekoak eta baliabideak izan ditzaten. Funtsezkoa da foru legeak artxibo sistema horien bideragarritasuna bermatzea.

Toki entitateekin estu lotuta, deigarria da nola Nafarroako Artxibo Sistemako langileen betebeharrak profesionalen atalean titulazioak eta teknikarien lanbide profila zehaztu gabe gelditzen diren bitartean (“behar denean ezarriko dira”), udal artxiboekin kasuan, zerbitzu horietako zuzendaritza administratibo eta teknikoak goi mailako unibertsitate titulua duten artxibozainei dagokiela ezarrita dagoen. Gure iritziz, berdintasunaren printzipioa bermatzeko, beharrezkoa da, oro har, gehiago zehaztea.

Azkenik, etorkizunera begira egin nahi den hau bezalako lege proiektu batean, hutsune garrantzitsu bat dago; izan ere, berriz ahaztu zaie Nafarroan bi hizkuntza daudela. Nafarroako berezko hizkuntza den aldetik, ezinbestekoa irizten diogu euskararen presentzia artxibo sistemaren tresnetan bermatzeari, bai dokumentuak kudeatzeko sistemetan bai erabiltzaileek baliatzen dituzten sistemetan.

3. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artxiboei eta dokumentuei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioak: Eusko Alkartasuna parlamentu-taldean harrirituta dakusagu nolatan Nafarroako Gobernuak lau lege proiektu aurkeztu dituen, haietako batzuk munta handikoak, hala nola Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea, Ondareari buruzko Foru Legea eta abar, parlamentu-jardueraren azken bi hilabeteetan.

Lege proiektu horien guztien sakoneko eztabaida egiteko denborarik ez izateak eta eztabaida horretarako nahitaezkoa den prestaketa-lanak osoko zuzenketa bat aurkeztera behartzen gaituzte, proiektu horiek Nafarroako Gobernuari itzultzea proposatzeko, eta halatan hurrengo legegintzaldian eztabaida lasai eta patxadatsua egin ahal izateko, behar adina denbora izanik Legebiltzar honetako talde guztiok lege proiektu horiek hobetzeko asmoz ekarpenak egin ahal izateko.

Horregatik guztiarengatik, azaldutako arrazoietan oinarri harturik, Foru Legebiltzarreko Osoko Bilkurari proposatzen diogu Artxiboei eta doku-

mentuei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzeko erabakia hartzea.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Artxiboei eta dokumentuei buruzko Foru Lege proiektua gobernari itzul dakion eskatzen duena.

Zioak: Parlamentu-talde honen iritziz, ez da egokia foru lege proiektu hau Nafarroako Parlamentura igortzea; batez ere, gertatu den uneagatik. Unea desegokia da legegintzaldi hau amaitzeko gelditzen den denbora urriagatik. Nafarroako Gobernuak proiektua 2007ko otsailaren 8an igorri zuen Nafarroako Parlamentura, hau da, VI. legegintzaldiko azken bilkuraldia amaitzeko 51 egun natural falta zirela. Tarte hori urriegia da edozein foru lege proiektu gutxieneko zorrotasunarekin tramitatu eta eztabaidatzeko. Foru lege proiektu batek tramitatzeko batez beste behar duen denbora, 2006an zehar igorri direnak kontuan hartzen baditugu, ia hiru hilabete izaten da, denboraldi baliogabeak zenbatu gabe; baina denbora are urriagoa da kontuan hartzen badugu proiektua igorri zenean beste bederatzik foru lege proiektu ari zirela tramitatzen, zuzenketa aurkeztutako proiektu honekin batera beste bi ere igorri zirela eta, hurrengo bi astetan, Nafarroako Gobernuak beste bi proiektu gehiago igorri zituela. Egoera horretan ezinezkoa da Parlamentuan egoki aztertzea, zuzentzea eta eztabaidatzea Nafarroako Gobernuak proposatzen dituen arauak, kontuan izanda, bereziki, proiektuok gai garrantzitsu eta konplexuei buruzkoak direla, hala nola Nafarroako poliziak, Nafarroako Ogasun Publikoa edo Nafarroako Ondarea.

Nafarroako Gobernuak berak lege proiektuak egiteko eta igortzeko azaldu zuen egutegian (parlamentu-talde honek egindako bi galderari erantzuteko Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak, 2004ko urriaren 14an, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran emandako ahozko erantzunean eta 2005eko martxoaren 2ko idatzizko erantzunean azaldukoak), aurreikusita zegoen proiektu hau 2006ko lehen seihilekoan igortzea. Urte bat beranduago heldu da.

Ez denez presako gaia, azaroaren 22ko Nafarroako kultur ondareari buruzko 14/2005 Foru Legean gaiari buruzko gutxieneko arautze bat dagoelako, foru lege proiektu hau ez zen garai honetan igorri behar. Bidezkoa da horrelako arau

baten eztabaida eta onespena hurrengo legegintzaldi baterako uztea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu: Artxiboei eta dokumentuei buruzko Foru Lege proiektua gobernuari itzultzea.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“1. artikulua. Foru legearen xedea.

Foru lege honen helburua da Nafarroako Artxi-
bo Sistema eratzea, batez ere bere egitura, bere partaideen eskubide, betebeharrak eta bere antolaketa eta tratamendu artxibistikoa eta, azkenik, Nafarroako Gobernuaren, toki entitateen eta Nafarroako Foru Komunitatekoak diren edo bertan dauden beste erakunde publiko batzuen dokumentazioa kudeatzeko irizpideak finkatzea, interes orokorren zerbitzura jartzeko.”

Zioak: Idazketa erraztea, Kultur ondareari buruzko Foru Legean dauden edukiak errepikatu gabe.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 2. artikuluko a), b), c), e) eta g) letrak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Idazketa erraztea, Kultur ondareari buruzko Foru Legean edo proiektuaren beste artikuluetan dauden edukiak errepikatu gabe.

3. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko c) letra aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“c) Dokumentu funtsa: dokumentu multzo organiko bat da, pertsona fisiko nahiz juridiko, publiko nahiz pribatu batek (...) prozesu naturalean sortua edo jasoa.”

Zioak: Horrela testua egokiagoa da.

4. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko e) letra aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“e) Artxiboa: organismo edo instituzio bat da, dokumentuak eta dokumentu funtsak antolatu, zaindu, kudeatu, deskribatu, kontserbatzeko eta zabaltzeko eginkizunak berariaz betetzen dituena. Artxiboa da, halaber, dokumentu funtsa edo funtsen multzoa.”

Zioak: Gure iritziz ez da beharrezkoa dokumentu eta dokumentu funtsen erabilera mugatzea.

5. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko f) letra aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“f) Dokumentuak kudeatzeko sistema: operazio eta tekniken multzoa da, kudeaketa administratibo orokorrean integratuak, dokumentuen ekoizpenaren, izapidetzearen eta baloreen analisisan oinarrituak, eta helburu dute dokumentuak planifikatzea, kontrolatzea, erabiltzea, zaintzea, desagerraraztea edo artxi-
bo batera eramatea, haien tratamendua arrazionalizatze-
ko eta bateratzeko eta, horrela, dokumentuen kudeaketa eraginkorra eta errentagarria lortzeko.”

Zioak: Definizio Kataluniako legearengatik hartu dugu eta askoz zehatzagoa eta egokiagoa iruditzen zaigu.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

6. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

2. idatz-zatiaren amaieran hauxe gehitzea proposatzen da: “Dokumentu publikoen antolamendua, ebaluazioa eta kontserbazioa eta horiek eskuratzeko bidea kasuan kasuko titularren zuzeneko erantzukizuna da.”

Zioak: Gure ustez guztiz beharrezkoa da erantzukizunaren gaia azpimarratzea.

7. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“4. Nafarroako Artxibo Sistema osatzen duteneko edozein organo edo pertsona juridikoa desegitean edo kentzean, bere dokumentazioa automatikoki gordeko da arlo horretan eskumena duen departamentuak erabakitako artxiboan, betiere, haien jatorritik hurbilen dagoen artxiboa eta jatorriaren printzipioa aintzat hartuz. Aldiz, organo edo pertsona juridiko bat desegitean edo kentzean, beste batek hartzen baditu lehengoaren eginkizunak eta eskumenak, organo edo pertsona juridiko berriak artxiboaren ardura ere bere gain hartuko du.

Zioak: testua hobetzen du.

8. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari beste idatz-zati bat, 4 bis, gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“4. bis artikulua. Entitate publikoen pribatizazioa.

Erakunde publiko bat edo haren menpeko entitate bat pribatu bihurtzen denean edo publiko iza-

teari uzten dionean, izaera edo jabetza aldatu baino lehenagoko dokumentazioak titulartasun publikoari eutsiko dio. Aipatu dokumentazioa, modu iraunkorrean gordetzeko bada, erakundea edo entitatea zein administrazio publikoaren menpe zegoen, haren artxibora edo Kultura Departamentuak aukeratzen duenera eraman behar da.”

Zioak: Erakunde publikoen dokumentazioaren titulartasun publikoa bermatu nahi da, erakundeak pribatu bihurtu arren.

9. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari idatz-zati berri bat, 4. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“4. bis. Erakunde publiko bat edo haren menpeko entitate bat pribatu bihurtzen denean edo publiko izateari uzten dionean, izaera edo jabetza aldatu baino lehenagoko dokumentazioak titulartasun publikoari eutsiko dio. Aipatu dokumentazioa, modu iraunkorrean gordetzeko bada, erakundea edo entitatea zein administrazio publikoaren menpe zegoen, haren artxibora edo artxiboaren arloan eskumena duen departamentuak aukeratzeko duenera eraman behar da.”

Zioak: Proiektuan aurreikusita ez dagoen alderdi bat gehitzea, araudia osatzearen.

10. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari beste idatz-zati bat, 6 bis, gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“6 bis) Nafarroan egoitza duten nazioarteko erakunde publikoek sortu edo jasotako dokumentuak”

Zioak: Nafarroa Europaren barne dagoenez, gure erkidegoari etorkizunean irekiko zaizkion aukerak ahaztu gabe jardun behar dugu lanean. Bestalde, nazioarteko erakunde horiek sortutako dokumentazioa, gaur egun eta etorkizunean, Nafarroako dokumentu ondarearen parte izan dadin bermatu behar dugu.

11. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bat, 4 ter, gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua

“4. ter artikulua. Dokumentu publikoen titularren erantzukizuna

1. Administrazio guztiek eta dokumentu publikoen titular diren entitateek dokumentuak kudeatzeko sistema bakarra izan behar dute; sistema dokumentuak planifikatzeko, tramitatzeko, kontrolatzeko, ebaluatzeko eta kontserbatzeko eta horiek eskuratzeko bidea izanen da; halaber, sistematik bermatuko du, administrazioak, fase aktiboan eta erdi-aktiboan, dokumentuak egoki erabiltzen dituela.

2. Erabilitako teknika edo euskarriak gorabehera, dokumentu publiko guztiek bermatuta izan behar dituzte edukien benetakotasuna, integritatea eta kontserbazioa, baita, bidezkoa bada, konfidentzialtasuna ere.

3. Fase aktiboa bukatutakoan, dokumentu publikoak dagokien artxibora eraman behar dira. Modu iraunkorrean gorde behar direla erabakitzen bada, dagokien artxibo historikoan bildu behar dira.

4. Administrazioek eta dokumentu publikoen titular diren entitateek, bereziki dokumentuak zaintzeaz arduratzen diren organoek, dokumentuen eskuragarritasuna ahalbidetu behar dute eta, kasu bakoitzean, eskubidea duten pertsonen horien kopia edo ziurtagiria eman behar diete. Edonola ere, intimitaterako eta legeak babestutako datuen erreserbarako eskubidea bermatu behar da.

5. Administrazioek eta dokumentu publikoen titular diren entitateek dokumentuak legeak eskatzen duen eta herritarren eskubideek justifikatzen duten mailan trata daitezten lortzeko behar diren baliabideak jarriko dituzte.”

Zioak: Gure ustez alderdi horiek ez daude foru lege proiektuan jasota eta agertu behar dira.

**5. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****12. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 5. artikuluko 1., 3., eta 5. idatz-zatiak kentzeko zuzenketa.

Zioak: 1. idatz-zatiko testua kontraesankorra eta ez beharrezkoa da. 2. idatz-zatian Nafarroako kultur ondareari buruzko Foru Legea aipatzea nahikoa da. 3. eta 5. idatz-zatiak ez dira dokumentu pribatuei buruz baizik eta artxibo pribatuei buruz; beraz, hobe da erregulazio hori IV. tituluan agertzea, beste zuzenketa batean proposatzen den bezala.

13. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 5. artikuluari 7. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“7. Dokumentu ondarearen zati diren dokumentu pribatuek kontserbazio eta segurtasun arazo larriak dituztenean, artxiboen arloan eskumena duen departamentuak dokumentuen jabeen edo dokumentuak gordetzen dutenei arazo horiek konpontzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzaten eskatuko die. Eskaera aintzat hartzen ez badute, departamentuak, interesdunen entzun ondoren, dokumentuak Nafarroako Foru Komunitateak kudeatzen dituen artxiboetako batean behin-behinekoz gordetzeko agindua eman dezake erabaki hori hartzeko arrazoiak desagertu arte.”

Zioak: Erregulazioa osatzea.

14. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bat, 5 bis, gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“5. bis artikulua. Dokumentu ondarearen zati diren dokumentu pribatuen titularren erantzukizuna.

Dokumentu ondarearen zati diren dokumentu pribatuen titularrek honako betebeharrak dituzte:

1. Dokumentuak ordenatuak eta inbentariatuak izatea. Inbentarioaren kopia eman behar zaio ardura duen departamentuari.

2. Ardura duen departamentuaren alde aurretiko baimenik gabe dokumentuak osoak gordetzea eta funtsak ez zatitzea.

3. Ikerlari direla agiri bidez egiaztatzen duten pertsonen dokumentuak kontsultatzen uztea.

4. Titulartasunean edo dokumentuen jabetzan egin behar den edozein aldaketa alde aurretik jakinarazi ardura duen departamentuari.

5. Ardura duen erakundearen alde aurretiko baimenik gabe dokumentuak ez deuseztatzea.

Zioak: Gure ustez alderdi horiek ez daude foru lege proiektuan jasota eta agertu behar dira.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

15. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 7. artikuluko d) letra aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“d) Nafarroako Foru Komunitatean dauden administrazio publiko guztietako eta haren erakunde, sozietate eta fundazioetako artxiboak, edozein delarik haien titulartasuna eta dokumentuen antzintasuna.

Zioak: Proiektuko testua nahasia da.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

16. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 8. artikulua aldatzeko zuzenketa. “Sistemaren burua” esaten duen lekuan “Sistemaren zuzendaritza” esan behar du.

Zioak: Testua hobetzen du.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

17. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“10. artikulua. Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordea.

1. Aholku emateko organo teknikoa da, artxiboen arloko eskumenak dituen departamentuari atxikia, eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak sortutako dokumentuen balorazioari, hautapenari eta eskuragarritasunari buruzko txostenak egitea dagokio.

2. Hona hemen Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordearen eginkizunak:

a) Dokumentu sailak suntsitu edo etengabe gorde behar diren ebaluatzeko irizpideak eta artxiboko dokumentuen eskuragarritasunari buruzkoak finkatzea.

b) Legeria indarduna kontuan harturik, Nafarroako dokumentu ondareko dokumentuak eskuratzeko baldintzak eta epeak erabakitzea.

c) Erregelamenduz ezartzen diren gainerako eginkizunak.

3. Batzordearen osaera, funtzionamendua eta egokitzeak jotzen diren konpentsazioak erregelmendu bidez ezarriko dira.

4. Gainerako administrazio publikoek ere dokumentuen ebaluaziorako batzordeak osatu ahalko dituzte, eta aurreko ataletan araututako Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordera bidali beharko dituzte dokumentuak gordetzeko egutegiak. Ebaluazio batzorderik ez duten administrazio publikoek Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeari igorriko dizkiote proposamenak.”

Zioak: Batzordearen eginkizunei dagokionez, proiektuaren testua ez da argia.

14. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

18. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

III. kapituluari beste artikulua bat, 14 bis, gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“14. bis artikulua. Dokumentazioaren eskuragarritasuna bermatzeko beharra.

Nafarroako Artxibo Sistemako kideek herritarrek dokumentazioa eskuragarri izateko duten eskubidea bermatu behar dute, pertsonen intimitaterako eskubidea eta horren inguruan foru lege honetako 20. artikuluan ezarritakoa errespetatuz.

Halaber, Nafarroako Artxibo Sistemako kideek gordetzen dituzten dokumentuen kopia edo ziurtagiria emanen diete kasu bakoitzean eskubidea duten pertsonari, betiere, pertsonen intimitaterako eskubidea eta legeak babestutako datuen erreserbarako eskubidea errespetatuz.”

Zioak: Herritar guzti-guztiak dokumentazioa eskuratzeko duten eskubidea ahalik eta hobekien bermatzea; gure ustez, berme horrek lege honetako ildo nagusietako bat izan behar du.

19. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

III. kapituluari beste artikulua bat, 14 bis 1, gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“14. bis 1 artikulua. Teknologien erabileraren sustapena

Administrazio publikoek informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera modu aktiboan sustatu behar dute, dokumentuen tratamenduak –dokumentuak kudeatzea, gordetzea eta zabaltzea– bere helburua, hau da, dokumentuak erabiltzaileen eskura jartzea, betetzen duela bermatzeko”

Zioak: Gaur egun bizi garen informazioaren gizartean, administrazioak informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eguneroko funtzionamenduan sartzea bermatu behar du eta, halaber, eredu izan behar du teknologia berriak aplikatzearen arloan proiektuak bultzatuz; asmoa beti izan

behar da dokumentuak kudeatzea, zaintzea eta zabaltzea erraztea, eta dokumentuak herritarren eskura jartzea.

16. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

20. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

16. artikuluari j) letra gehitzeko zuzenketa

Proposatzen den testua:

“j) Herritar guztiak Nafarroako dokumentu ondarearen dokumentazioa eskuragarri izateko eta, eskatuz gero, dokumentazio horren kopia edo ziurtagiri bat lortzeko duten eskubidea bermatzea.”

Zioak: Herritar guzti-guztiak dokumentazioa eskuratzeko duten eskubidea ahalik eta hobekien bermatzea; gure ustez, berme horrek lege honetako ildo nagusietako bat izan behar du.

17. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

21. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

17. artikuluari j) letra gehitzeko zuzenketa

Proposatzen den testua:

“j) Herritar guztiak Nafarroako dokumentu ondarearen dokumentazioa eskuragarri izateko eta, eskatuz gero, dokumentazio horren kopia edo ziurtagiri bat lortzeko duten eskubidea bermatzea.”

Zioak: Herritar guzti-guztiak dokumentazioa eskuratzeko duten eskubidea ahalik eta hobekien bermatzea; gure ustez, berme horrek lege honetako ildo nagusietako bat izan behar du.

18. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

22. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

18. artikuluari h) letra gehitzeko zuzenketa

Proposatzen den testua:

“h) Herritar guztiek Nafarroako dokumentu ondarearen dokumentazioa eskuragarri izateko eta, eskatuz gero, dokumentazio horren kopia edo ziurtagiri bat lortzeko duten eskubidea bermatzea.”

Zioak: Herritar guzti-guztiek dokumentazioa eskuratzeko duten eskubidea ahalik eta hobekien bermatzea; gure ustez, berme horrek lege honetako ildo nagusietako bat izan behar du.

20. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

23. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“2. Dokumentu publiko bat eskuratzeko baimena legez ezarritako mugak aplikatuz bakarrik uka daiteke. Dokumentu publikoak eskuratzeko eskubidearen ukazioak arrazoituriko ebazpenaren bidez egin behar dira. Nafarroako Artxibo Sistemari gortetako dokumentuak kontsultatzeko mugak jendaurrean azaldu behar dira erabiltzaileek muga horien berri izan dezaten.”

Zioak: Herritarrek dokumentuak eskuratzeko duten eskubidea zehaztasun handiagoz bermatzeko.

24. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Idatz-zatiaren amaieran hau gehitzea proposatzen da:

“4. ...dokumentuak eskuratzeko erreserbaren gehieneko epea, oro har, hogeita hamar urtekoa izanen da, dokumentuaren datatik kontatzen hasita...”

Zioak: Gure ustez, Europako Batzordearen erregelamenduen joerari jarraikiz, epea murriztea garrantzitsua da.

25. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluari –Dokumentazioa jendearen eskura jartzea– 5. idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“5. Administrazioak, legeari jarraikiz ezkutuan gorde behar diren datuak dituzten dokumentuen kasuan, partzialki eskuratzeko baimena eman behar du, baldin eta dokumentu horiei ezkutuko datuak eskuratzeko edo emandako informazioaren bidez datuak osatzeko ezintasuna bermatuko duten prozesu teknikoak egin ahal bazaizkie.”

Zioak: Herritar guzti-guztiek dokumentazioa eskuratzeko duten eskubidea ahalik eta hobekien bermatzea; gure ustez, berme horrek lege honetako ildo nagusietako bat izan behar du.

26. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Projektuko 20. artikuluari 5. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“5. Salbuespen gisa, Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeak txosten bat egin eta gero, administrazio publikoek kontsulta publikotik salbuetsitako dokumentu horiek eskuratzeko baimena eman dezakete, betiere, tartean interes zilegi edo zientifikoak badaude eta legeak babestutako egoerak zainduz eta pertsonen intimitatea bermatzen bada.”

Zioak: Herritarrek dokumentuak eskuratzeko duten eskubidea zehaztasun handiagoz bermatzeko.

27. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 20. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“20. bis artikulua. Dokumentu publikoak eskuratzeko eskubideaz baliatzea.

1. Dokumentu publikoak eskuratzeko eskariak ebazteko epea bi hilabetekoa da. Epea bukatuta ebatzi ez bada, eskaria ezetsizat joko da; hala

ere, eskatzaileak administrazioari eska diezaioke ebazteko beharra bete dezan.

2. Administrazioak, legeari jarraikiz ezkutuan gorde behar diren datuak dituzten dokumentuen kasuan, partzialki eskuratzeko baimena eman behar du, baldin eta dokumentu horiei ezkutuko datuak eskuratzeko edo emandako informazioaren bidez datuak osatzeko ezintasuna bermatuko duten prozesu teknikoak egin ahal bazaizkie.

3. Dokumentuak eskatzailearen eskura jarri behar dira honek aukeratu eta erabilgarri dagoen euskarrian. Dokumentuak eskuratzeko eskubideaz baliatzeak dokumentu baten kontserbazio egokia kaltetu dezakeen kasuan, eskatzaileari kopia bat kontsultatzeko aukera eman behar zaio.

4. Administrazio publikoek eta Nafarroako Artxibo Sistemako artxiboek herritarrek dokumentuak eskuratzeko duten eskubideaz baliatzeko aukera ahalbidetuko duten baliabide tekniko guztiak izan behar dituzte.”

Zioak: Herritarrek dokumentuak eskuratzeko duten eskubidea zehaztasun handiagoz bermatzeko.

28. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat, 20. ter, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“20. ter artikulua. Dokumentu pribatuak jendearen eskura jartzea.

Behar bezala akreditatuak dauden ikerlariek dokumentu ondarea osatzen duten dokumentu pribatuak eskura ditzakete. Betebehar hori betetzeko, dokumentuaren titularrak eskubidea du dokumentua, aldi baterako eta kosturik gabe, Nafarroako Artxibo Sistemako artxibo publiko batean uzteko.”

Zioak: Herritarrek dokumentuak eskuratzeko duten eskubidea zehaztasun handiagoz bermatzeko.

22. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

29. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 22. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“22. artikulua. Egitura.

Hauek dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Artxibo Sistemaren partaide:

- a) Sistemaren Zuzendaritza.
- b) Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordea.
- c) Bulegoko artxiboak.
- d) Departamentuetako artxiboak.
- e) Administrazioaren Artxibo Zentrala.
- f) Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.

g) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren menpeko erakunde publikoetako eta haren menpeko beste entitate batzuetako artxiboak.

h) Foru lege hau aplikatzearen ondorioz sortzen diren edo sisteman sartzen diren artxibo arloko organo, zentro, zerbitzu eta baliabideak.”

Zioak: Artxiboak modu argiago batez izendatzea.

23. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

30. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 23. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 8. artikuluan araututakoa errepikatzen du.

24. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

31. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

24. artikuluko –Dokumentazioa jendearen eskura jartzea– b) letra aldatzeko zuzenketa.

“b) Herritarren eta administrazioaren eskubide eta betebeharrak bermatzen laguntzea.”

Zioak: Herritarren eta administrazioaren esku-bide eta betebeharren bermea azpimarratzea.

32. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

24. artikuluari –Bulegoko artxiboak– g) letra eransteko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“g) Dokumentuak kudeatzeko sistemetan euskararen presentzia bermatzea, bai administrazioaren sistemetan bai Nafarroako Artxibo Sistemaren sareko erabiltzaileek baliatzen dituzten sistemetan.”

Zioak: Euskararen presentzia bermatzea Nafarroako Artxiboen sarean.

25. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

33. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 25. artikulua aldatzeko zuzenketa. Artikuluaren izenburua eta lehenbiziko lerrokada honela geldituko da:

“ 25. artikulua. Departamentuetako eta erakunde publikoetako artxiboak.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioiko departamentuek, erakunde publikoek eta haren menpeko beste entitate batzuek ondoko eginkizunak izanen dituen artxibo bat izanen dute:

Zioak: Artxiboak modu argiago batez izendatzea.

34. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

25. artikuluko –Artxibo zentralak– d) letra aldatzeko zuzenketa.

“d) Unitate sortzaileen dokumentuak herritarren eta administrazio prozeduretako interesatuen eskura jartzea ahalbidetzea eta bermatzea...”

Zioak: Herritarren eta administrazioaren eskubide eta betebeharren bermea azpimarratzea.

35. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

25. artikuluari –Artxibo zentralak– h) letra gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“h) Udal artxiboak dokumentuak kudeatzeko sistemetan euskararen presentzia bermatu behar du, bai administrazioaren sistemetan bai Nafarroako Artxibo Sistemaren sareko erabiltzaileek baliatzen dituzten sistemetan.”

Zioak: Euskararen presentzia bermatzea Nafarroako Artxiboen sarean.

26. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

36. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

26. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“26. artikulua. Administrazioaren Artxibo Zentrala.

Bitarteko artxiboa izanik, honako eginkizun hauek dagozkie:

a) Bulegoko, departamentuetako eta erakunde publikoko artxiboetatik ohiko transferentzia bidez datorren dokumentazioa hartzea, haietan egoteko epea bukatu ondoren.

b) Dokumentuak sortu zituzten unitateei dokumentu horiek kontsultatzeko eta maileguan hartzeko aukera bermatzea.

c) Dokumentuak herritarren eta interesatuen eskura jartzea, kasuan-kasuan aplikatu behar den araudiarekin bat.

d) Dokumentazioaren tratamendu tekniko egitea, egoki kudeatzeko, kontserbatzeko eta eskuratzeko.

e) Bulegoko, departamentuetako eta erakunde publikoetako artxiboetan teknika artxibistikoen aplikazioa koordinatzea.

f) Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordean aurkeztuko diren espedienteak prestatzea eta hartzen diren erabaki eta ebazpenak egoki betetzen direla begiratzea.

g) Dokumentuen bizi-ziklo osoan kontserbazio arauak zuzen betetzen direla gainbegiratzea.

h) Nafarroako Errege Artxibo Nagusira eraman aurretik, Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordearen proposamenari jarraikiz hautatzen diren dokumentuak suntsitzea.”

Zioak: Artxiboak modu argiago batez izendatzea.

37. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

26. artikuluko –Administrazioaren artxibo– c) letra aldatzeko zuzenketa.

“c) Dokumentuak herritarren eta interesatuen eskura jartzea ahalbidetzea eta bermatzea...”

Zioak: Herritarren eta administrazioaren eskubide eta betebeharren bermea azpimarratzea.

38. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

26. artikuluari –Administrazioaren artxiboak– i) letra gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“i) Udal artxiboak dokumentuak kudeatzeko sistemetan euskararen presentzia bermatu behar du, bai administrazioaren sistemetan bai Nafarroako Artxibo Sistemaren sareko erabiltzaileek baliatzen dituzten sistemetan.”

Zioak: Euskararen presentzia bermatzea Nafarroako Artxiboen sarean.

27. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

39. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 27. artikuluko lehenengo lerrokada aldatzeko zuzenketa. “Gobernuaren artxibo historikoa” esaten duen lekuan “Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren artxibo historikoa” esan behar du.

Zioak: Testuan zuzenketa tekniko bat sartzea.

40. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

27. artikuluko –Nafarroako Errege Artxibo Nagusia– b) letra aldatzeko zuzenketa.

“b) Kontserbatzen dituen dokumentuak jendearen eskura jartzea ahalbidetzea eta bermatzea.”

Zioak: Herritarren eta administrazioaren eskubide eta betebeharren bermea azpimarratzea.

41. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

27. artikuluko –Nafarroako Errege Artxibo Nagusia– i) letra aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“i) Udal artxiboak dokumentuak kudeatzeko sistemetan euskararen presentzia bermatu behar du, bai administrazioaren sistemetan bai Nafarroako Artxibo Sistemaren sareko erabiltzaileek baliatzen dituzten sistemetan.”

Zioak: Euskararen presentzia bermatzea Nafarroako Artxiboen sarean.

29. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

42. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. "bertako udal artxiboak zuzendua" esaten duen lekuan "bertako udal artxiboko ardura duen organoak zuzendua" esan behar du.

Zioak: Testuan zuzenketa tekniko bat sartzea. Artxibo batek ez du zuzentzen.

43. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluko –15.000 biztanletik gorako udalak– 2. idatz-zatiko h) letra aldatzeko zuzenketa.

"h) Udalaren... eta erosketak, hitzarmenak edo egokitzat jotzen den beste edozein sistema erabiliz."

Zioak: Udalaren dokumentu ondarearen aberastasuna bultzatzeko aukera irekita uztea, egokitzat jotzen diren bide guztiak erabiliz.

44. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. "goi mailako unibertsitate titulua" esaten duen lekuan "egokitzat jotzen den unibertsitate titulua" esan behar du.

Zioak: Europako goi mailako ikasketetara egokitzeko egiten ari den unibertsitate mailako hezkuntzaren erreforma dela-eta, beharbada, etorkizun laburrean desegokia izan daiteke goi mailako unibertsitate tituluei buruz mintzatzea.

45. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluari –15.000 biztanletik gorako udalak– beste idatz-zati bat, 6 bis, gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

"6. bis) Udal artxiboak dokumentuak kudeatzeko sistemetan euskararen presentzia bermatu beharko du, bai administrazioaren sistemetan bai Nafarroako Artxibo Sistemaren sareko erabiltzaileek baliatzen dituzten sistemetan."

Zioak: Euskararen presentzia bermatzea Nafarroako Artxiboen sarean.

30. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

46. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

"2. Toki entitate horiek artxibo zerbitzuak partekatu edo elkartu ahalko dituzte, proportzionaltasun, eraginkortasun eta efizientzia irizpideei jarraituz. Horrelakoetan, zerbitzua egokitzat jotzen den unibertsitate titulua duen artxibozain baten gainbegiratzearen eta zuzendaritza teknikoaren pean egonen da.

Zioak: Lankidetzaren irizpideari buruz mintzatzea esandakoa errepikatzea da eta lurraldetasun printzipioak ez du edukirik. Hobe da eraginkortasun eta efizientziari buruz mintzatzea. Bestalde, Europako goi mailako ikasketetara egokitzeko egiten ari den unibertsitate mailako hezkuntzaren erreforma dela-eta, beharbada, etorkizun laburrean desegokia izan daiteke goi mailako unibertsitate tituluei buruz mintzatzea.

31. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

47. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 31.etik 35.era bitarteko artikuluek, biak barne, kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proiektua sinplifikatzea. Aipatu artikuluek ez dute ezer ekartzen, izan ere, beste legeria batzuk aipatzen dituzte.

48. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

II. kapituluari –Toki entitateen artxibo sistemak– artikulua bat, 31.a, gehitzeko zuzenketa.

Proposatzen den testua:

“31. artikulua. Toki entitateen artxibo sistemen finantzaketa.

Nafarroako Gobernuak, foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz, toki entitateei beren artxiboak kudeatzeko behar dituzten bitarteko eta baliabideak eman beharko dizkie.”

Zioak: Toki entitateen artxibo sistemen bideragarritasuna bermatzea.

**36. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

49. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 36. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“36. artikulua. Erakundeen beste artxibo batzuk Nafarroako Artxibo Sistemari sartzea.

Foru lege honetan arautu ez diren eta berezko legeria duten izaera publikoko erakunde eta organoen artxibo sistemak egokien den baliabide juridikoaren bitartez sartuko dira Nafarroako Artxibo Sistemaren barrenean, baina beren izaera eta funtzionamendua arautzen dituzten arauak errespetatuz.

Zioak: Testua sinplifikatzea, 31.etik 35.era bitarteko artikulua kentzeko zuzenketarekin bat.

50. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuari Artikulu berri bat, 36. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“36. bis artikulua. Artxibo pribatuak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, artxibo pribatuak dira izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoen dokumentu funts edo bildumek osatzen

dituztenak, Nafarroako Foru Komunitatean jarduten badute.

2. Artxibo pribatu bat Nafarroako Artxibo Sistemari sartuko da, interesdunek eskatuta, hala erabakitzen badu arlo horretan eskumena duen departamentuak, betiere, bi aldeek eskubideak eta betebeharrak zehazten dituen hitzarmen bat sinatu eta gero.

3. Nafarroako Artxibo Sistemari sartuko diren artxibo pribatuak lehentasuna izanen dute laguntza eta dirulaguntzak jasotzeko.

4. Nafarroako administrazio publikoaren laguntzak jaso dituzten artxibo pribatu guztiek utzi beharko diete ikerlariei funtsak kontsultatzen.”

Zioak: Erregulazioa osatzea.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

51. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen Gehigarria. Teknologia berrien sustapena.

1. Nafarroako administrazio publikoaren informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera bultzatzeko dute dokumentuen tratamenduan, dokumentuen kudeaketan eta zabaltzean.

2. Ziurtagiri elektronikoaren bidez baimendutako dokumentuak tratatzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko, dokumentu horiek dituzten ezaugarri berezietan egokitutako berriarazko araudi bat beharko da; horrela, gainerako dokumentuekin batera, Nafarroako Artxibo Sistemari eta dagozkien dokumentu sailetan sartu ahal izanen dira, dokumentuek duten euskarri fisikoa edozein dela ere.

3. Dokumentu elektronikoaren zainketa egiten da dokumentuek honelako ezaugarriak gordetzen dituztela bermatzeko: osoak dirautela, hala egituran nola testuinguruan; fidagarriak direla, dokumentuek edukiaren fede ematen jarrai dezaketela; egiazkoak direla, jatorrizko dokumentuek ustezko leku aldaketetan aldaketarik jasan ez dutela; eta eskuragarriak direla, kokapenari eta irakurgarritasunari dagokienez.”

Zioak: Proiektuan aipatuta baino ez dagoen alderdi bat gehitzea, araudia osatzearen.

52. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.
Hona testua:

“Xedapen gehigarria. Nafarroako Parlamentuko artxiboak.

Nafarroako Parlamentuak eta haren menpeko organoek orain arte dituzten artxiboei eta dokumentuen kudeaketa sistemei eutsiko dizkiete eta Nafarroako Artxibo Sistemaren barruan egonen dira; halaber, irizpide teknikoei, baliabide materialei eta langileei dagokienez, foru lege honetan xedatutakoari jarraituko diote.”

Zioak: Erregulazioa osatzea.

Foru Lege proiektua, Ogasun Publikoari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Ogasun Publikoari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezzen agindu dit. Proiektu hori 2007ko otsailaren 14ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen duena.

Zioak: Parlamentu-talde honen iritziz, ez da egokia foru lege proiektu hau Nafarroako Parlamentura igortzea; batez ere, gertatu den uneagatik. Unea desegokia da legegintzaldi hau amaitzeko gelditzen den denbora urriagatik. Tarte hori urriegia da edozein foru lege proiektu gutxieneko zorrotasunarekin izapidetu eta eztabaidatzeko. Foru lege proiektu batek tramitatzeko batez beste behar duen denbora, 2006an zehar igorri direnak kontuan hartzen baditugu, ia hiru hilabete izaten da, denboraldi baliogabeak zenbatu gabe. Egoera horretan ezinezkoa da Parlamentuan egoki azterzea, zuzentzea eta eztabaidatzea.

Halaber, proiektu horrek baditu guk onartzen ez ditugun zenbait alderdi muntadun, hala nola sozietate publikoaren definizioa, onura fiskalak gastu-aurrekontuan sartzea, parlamentu-taldeei ezartzen zaien muga, gobernuaren aurrekontu-proiektuari zuzenketak aurkeztekoa, edo aurrekontuaren oroitidazki ekonomikoan jasotzen den informazio urria.

Bidezkoa da, ondorioz, horrelako arau baten eztabaida eta onespina hurrengo legegintzaldi baterako uztea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu: Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Lege proiektua gobernuari itzultzea.

2. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, zeinaren bitartez eskatzen baita Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.

Zioak: Sektore publikoaren araubide ekonomiko, finantzario eta aurrekontu-esparruko ezartzea bilatzen duen foru lege proiektu bat aurkezteko, legegintzaldia jadanik teknikoki agortuta dagoenean, UPN-CDNren gobernuak bere jardunean izandako arduragabekeriaren erakusgarri da.

Legegintzaldi guztian zehar, oposizioak eta, zehazki, parlamentu-talde honek, agerian utzi du zer-nolako hutsune dauden sozietate publikoek, enpresa-entitate publikoek eta abarrek osatzen duten sektore publikoaren definizioan eta kontrolan. Gai hau kontu serioa da, eta hain zuzen ere horregatik, doitasun eta zorrotasun handiko tratamendua behar du, eta horri ezin zaio arrapaladan ekin, UPNren ekintza arduragabe honek egin nahi duen bezala.

Comptos Ganberak bere azken txostenean nabarmentzen du egoera zeinen larria den gai honetan. Horregatik, lege proiektu honek gehiago dirudi hauteskundeei begira pentsaturiko amarru bat, eta ez hainbeste, ordea, foru administrazioaren arauketa hobetze aldera eginiko ekarpen zentzudun eta patxadatsua.

Bestalde, proposaturiko arauaren gabeziak funtsari dagozkio, eta xedapenetako batzuek gehiago dirudite saio bat geroago egingo diren ekintza irregular eta foru administrazioarentzat kaltegarriak diren batzuk justifikatzeko, horrelakoak zuzentzeko ahalegin bat baino.

3. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Horren bidez, proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioak: Eusko Alkartasuna parlamentu-taldean harrিতa dakusagu nolatan Nafarroako Gobernuak lau lege proiektu aurkeztu dituen, haietako batzuk

munta handikoak, hala nola Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea, Ondareari buruzko Foru Legea eta abar, legegintzaldi honen parlamentu-jardueraren azken bi hilabeteetan.

Lege proiektu horien guztien sakoneko eztabaida egiteko denborarik ezak eta eztabaida horretarako nahitaezkoa den prestaketa-lanak osoko zuzenketa bat aurkeztera behartzen gaituzte, proiektu horiek Nafarroako Gobernuari itzultzea proposatzeko, eta halatan hurrengo legegintzaldian eztabaida lasai eta patxadatsua egin ahal izateko, behar adina denbora izanik Legebiltzar honetako talde guztiok lege proiektu horiek hobetzeko asmoz ekarpenak egin ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, azaldutako arrazoietan oinarri harturik, Foru Legebiltzarreko Osoko Bilkurari proposatzen diogu Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzeko erabakia hartzea.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko f) letra ordeztzeko zuzenketa.

Proiektuaren testuaren ordezkari honako hau jar-tzea proposatzen da:

“f) Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak. Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikotzat jotzen dira honako baldintza hauek guztiak batera betetzen dituzten merkataritza sozietateak:

– Beren jardueraren bidez, neurri batean bederen, interes publikoko helburuak betetzea, industri edo merkataritza izaerarik ez dutenak.

– Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, zuzenean edo zeharka, haien jardueraren erdia baino gehiago finantzatzea edo haien jardueren gain eragin nagusia izatea, kudeaketa kontrolatzeko mekanismoen bitartez edo haien administrazio, zuzendaritza nahiz zaintza organoetako kideen erdiak baino gehiago hautatzea ahalbidetzen duten mekanismoen bitartez.”

Zioak: Sozietate publikoaren definizioa Europako Erkidegoko zuzenbidera egokitzea.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

2. artikuluko f) letraren ordezkari honako testu hau jartzea proposatzen da:

“f) Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak. Sozietate publikoak dira Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legean halakotzat jotzen direnak.”

Zioak: Sozietate publikoei buruz bilatzen den definizioa ez dator bat Ondareari buruzko Foru Lege proiektuan agertzen denarekin, eta horrek nahasmena besterik ez du sortzen. Proposatzen dugu ezen, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko 15/2004 Foru Legeari jarraituz, haren definizio gisa har dezagula arau bakar batean agertzen dena; kasu honetan, Ondareari buruzko Foru Legekoa.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

2. artikuluko g) lettran, “eta horrekin batera” espresioaren ordezkari “edo” jartzea proposatzen da.

Zioak: Era horretan, bi ezaugarrietako bat betetzen denean (alegia, fundazio publiko izateko baldintzak betetzea edo beren gobernu organoetan administrazioaren ordezkariak gehiengoa izatea), fundazio publikoak direla joko da. Proiektuan proposatzen den testuaren arabera, bi baldintzak bete behar dira.

14. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

14. artikuluko a, b eta c letretan adierazitako kopuruaren ordez honakoak ipintzea proposatzen da:

210.350 euroren ordez, 200.000 euro.

1.502.530 euroren ordez, 1.500.000 euro.

Zioak: Badugu garaia pezetatan ezarritako kopuruak eurotara pasatzen ibiltzeari uzteko eta indarrean dagoen moneta erabiltzeko.

21. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

5. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

21. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren lerrokadaren ordez honako testu hau jartzea proposatzen da:

“Nafarroako Ogasun Publikoak, bere betebeharrak ordaindu aurretik, eskatuko du hartzekodunak berarekiko tributu betebeharrak beteak izatea edo behar bezala berma dezala beteko dituela.”

Zioak: Gure ustez, interes publikoak babestearen, Ogasun Publikoak ordainketa egin aurretik eskatu behar du betebeharrak beteak izatea, gauzak auskalo zer organismo publikoren erabakimeneren baitan utzi beharrean.

29. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

6. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29.1 artikuluko a) letraren amaieran honako testu hau gehitzeko zuzenketa:

“Gastuen egoera orri hori osatuko dute, bereizirik, onura fiskalek eta urte anitzerako gastu konpromisoek.”

Zioak: Gastu aurrekontuaren bi alderdi muntadun dira, dituzten berezitasunen ondorioz argitasunez eta elkarrengandik bereizita zehaztu behar direnak.

30. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

7. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30. artikulua 2. idatz-zatiko lehen lerrokadaren amaieran “urtean” hitza kentzea proposatzen da.

Zioak: Litekeena da programek urtez urteko garapena izatea nahiz ez izatea. Gehienetan, programak zenbait ekitalditan zehar garatzen dira.

32. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

8. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

32. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letraren hirugarren lerrokadan honako testua kentzeko proposamena:

“Onura fiskalak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuko gastu egoeraren osagai izanzen dira.”

Zioak: Zuzena eta beharrezkoa da aurrekontuaren oroitidazki ekonomikoan ekitaldiko onura fiskalen berri ematea. Baina aurrekontu gastuetan sartzak soil-soilik balio du aurrekontuko egiazko eta benetako gastua itxuraldatzeko.

34. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

9. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

34. artikuluko 1. idatz-zatiari bigarren lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Jarraibide ekonomiko eta tekniko horiek onetsi eta berehala igorriko zaizkio Nafarroako Parlatuari, parlamentu-taldeek haien berri izan dezaten”

Zioak: Nafarroako Parlamentuari aurrekontuei buruzko informazio guztia helaraztea.

**36. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

10. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

36. artikulua 2. idatz-zatiaren amaieran honako testu hau kentzea proposatzen da: “edo harekin zuzenean edo zeharka loturiko beste zenbait gaitarako”.

Zioak: Ados gaude aurrekontuei buruzko foru legeek berez Ogasun Publikoari dagozkion gaiak arautzarekin, baina ez edozer gai. Ogasunarekin zuzeneko edo zeharkako lotura ia edozerk duela uler daiteke; horrela, bada, aukera ematen ariko ginatke aurrekontuei buruzko foru legeen bitartez edozein jardura arautzeko.

11. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

36. artikuluko 3. idatz-zatiko bigarren lerroka-dan 47. artikuluko 1. idatz-zatiko c) eta e) letrei buruzko aipamenak kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Aurrekontuei buruzko legerari aurkezturiko zuzenketa asko estatuarentzako ekarpenaren kargu edo zorraren interesen kargu egin behar-rekoak izateak ez die zilegitasunik kentzen proposamenei. Parlamentu-talde oro prest dago, gastu handiagorako aurkeztu duen zuzenketa onartzearen truke, kontrapartida negoziatzera. Aukera hori kentzearen xede bakarra da parlamentu-taldean eginkizuna oztopatzea.

12. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

36. artikuluko 3. idatz-zatiko bigarren lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez murriztea parlamentariak eta parlamentu-taldeek gobernuaren aurrekontu proiektuari zuzenketak aurkezteko daukaten ahalmena.

13. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

36. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Nafarroako aurrekontu orokorrak onesten dituzten foru legeek arauak eman ditzakete Nafarroako Ogasun Publikoari berez dagozkion gaietarako ere, baina aurrekontu horiek behar bezala betetzeko ezinbestez arautu beharrekoak direnarako, soil-soilik.

Aurrekontuei buruzko foru legea ez da erabiliko beste foru lege batzuk aldatzeko, baldin eta haiek aldatzea ezinbestekoa ez bada aurrekontuen lege proiektuan ezarritakoa betetzeko”.

Zioak: Jarduteko modu irregularra da ohitura gisa aurrekontuei buruzko legea erabiltzea beste foru lege asko aldatzeko, eta Parlamentuko eztabaida patxadatsua kaltetzeaz gain, batzuetan segurtasun juridikorik eza sortzen du edo sor dezake.

14. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

36. artikuluko 4. idatz-zatiko b) letrari bigarren, hirugarren eta laugarren lerroka-dak gehitzeko zuzenketa.

Testu hau gehitzea proposatzen da:

“Halaber, oroitidazkian informazio zehatza jasoko da foru lege honetako 61. artikuluan araututako Nafarroako Foru Komunitateko zorpetzearen bolumenari buruz.

Horrez gain, itzaleko bidesariak edo antzeko eragiketa finantzarioak direla-eta Nafarroako Foru Komunitateak harturiko ordainketa-konpromisoen zenbatespena ere jasoko da.

Azkenik, foru lege honetako 81. eta 82. artikuluetan arautzen diren zorpetze eragiketean eta abalen gaineko informazio xehekatua ere bilduko du”.

Zioak: Nafarroako Parlamentuari aurrekontuei buruzko informazio guztia helaraztea.

37. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

37. artikuluko 3. idatz-zatiko a) letraren amaieran “aurretiaz” espresioa gehitzea proposatzen da; honela geldituko litzateke:

“Funts horren beste edozein xede Nafarroako Parlamentuak aurretiaz baimendu beharko du foru legez.”

Zioak: Bestelakoan, Luzapen Funtsa zuhurtziaraketasunez erabili ahalko litzateke.

40. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

16. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

40. artikuluko 4. idatz-zatian “eta zilegi da are gastu horiek 3. idatz-zatiak aipatzen duen zenbaketatik kentzea ere” aipamena kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Nahiz eta gastu-konpromisoak foru lege mailako xedapenen bitartez baimenduta egon, guztizko zenbatekoan aipatu beharrekoak dira, hala eta guztiz ere.

42. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

17. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

42. artikuluari beste idatz-zati bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa:

“4. Nafarroako Gobernuak orotarako kreditu horren erabilerari buruzko txosten bat bidaliko dio, hiru hilabete behin, foru Parlamentuari”

Zioak: Kreditu horren salbuespenezko izaera dela-eta, parlamentuari informazio puntuala emateari beharrezko deritzogu.

59. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

18. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

59. artikuluaaren amaieran honako testu hau gehitzeko zuzenketa:

“Informazio hori bidaliko da aurrekontuen eztabaida eta onespenerako erabilitakoaren antzeko formatu eta egiturarekin”.

Zioak: Helburua da kontusailen eta aurrekontu-lerroen arteko alderaketa-lana erraztea, aurrekontu-betetzea gehiago eta hobeto kontrolatze aldera.

61. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

19. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

61. artikuluari beste idatz-zati bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Finantza-tresnetan oinarrituriko eragiketetan, haiek finantza-trukekoak edo bestelakoak izanik ere, zehaztasunez identifikatu beharko da, kanbiontasen alorrean, zer arrisku murriztu nahi diren; murriztu, dibertsifikatu edo aldatu nahi diren interes-tasen bilakaeraren ondorioz zor publikoak zer arrisku edo kostu duen eta, kasua bada, zer zorpetze-eragiketa zehatzekin loturik dauden”.

Zioak: Xedea da tresna finantzarioekin eginiko eragiketak estaltze-eginkizunetara mugatzea.

64. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

20. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

64. artikulua ordezteko zuzenketa.

Proiektuaren testuaren ordezkari honako hau jar-tzea proposatzen da:

“Zorpetze eragiketarako foru lege baten bidez baimendu beharko dira. Horretarako, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak aurrekontu ekitaldi bakoitzeko zorpetzearen bolumena eta eragiketarako ezarriko ditu”.

Zioak: Zorpetzearen muga jadanik finkatuta dago foru lege honetako 62. artikuluan. Edozein kasutan ere, urte bakoitzeko aurrekontuen foru legeak, muga horren barrenean betiere, ezarri behar du urte horretarako baimenduriko zorpetze-bolumena.

73. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

21. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

73. artikulua amaietan honako testu hau gehitzeko zuzenketa:

“Halaber, zorpetzearen egoera orokorrari buruzko informazioa bidaliko du, abian dauden eragiketen zerrendarekin eta haien ezaugarri nagusiekin”.

Zioak: Gobernuaren ahalegin txiki batekin Par-lamentuaren kontrol-eginkizuna errazten da.

80. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

22. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

80. artikulua amaietan honako testu hau gehitzeko zuzenketa:

“Halaber, abian dauden eragiketen zerrenda eta haien ezaugarri nagusiei buruzko informazioa bidaliko du”.

Zioak: Gobernuaren ahalegin txiki batekin Par-lamentuaren kontrol-eginkizuna errazten da.

87. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

23. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

87. artikulua beste idatz-zati bat, hirugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Funtz likido horiek ezin izanen zaizkie inola ere aplikatu, ezta aldi baterako edo behin-behineko ere, espekulazio-eragiketei, baldin eta Ogasun Publikoarentzat arriskutsuak izan daitezkeen opzio edo eratorri finantzarioen gainekoak badira”.

Zioak: Funtz publikoak eragiketa arriskutsuetatik salbatzea.

121. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

24. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

121. artikulua 2. idatz-zatiaren azken lerrokadaren ordezkari bi idatz-zati ipintzeko zuzenketa. Hirugarrena eta laugarrena lirateke, eta hona haien testua:

“3. Kontabilitate printzipio horiek aplikatzea nahikoa ez denean urteroko kontuek irudi zintzoa adierazteko, urteroko kontuetan informazio gehiga-

rria eman beharko da aplikaturiko kontabilitate printzipio gehigarri buruz.

4. Kontabilitate printzipio baten aplikazioa urteroko kontuek adierazi behar duten irudi zintzoarekin bateragarria ez izatea gertatzen den salbuespenezko kasuetan, kontabilitate printzipio horren aplikazioa bidegabetzat joko da, eta horren berri emanen da urteroko kontuetan; horren zergatia adieraziko da, bai eta ondare, finantza-egoera, aurrekontuaren betetze eta entitatearen emaitzetan duen eragina ere.”

Zioak: Argi uztea, inolako zalantzarik gera ez dadin, kontabilitate printzipioak aplikatzean irudi zintzoak lehentasuna duela beste edonolako irizpideren gain, Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorrean adierazten den bezalaxe.

XEDAPEN IRAGANKORREI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

25. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zuzena eta beharrezkoa da aurrekontuaren oroitidazki ekonomikoan ekitaldiko onura fiskalen berri ematea. Baina aurrekontu gastuetan sartzeak soil-soilik balio du aurrekontuko egiazko eta benetako gastua itxuraldatzeko.

26. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Udalen Funtzaren tratamenduari buruzko xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa.

“1. Foru Lege honetan ezarritakoa gorabehera, eta gai zehatz honetan toki ogasunei buruzko araudia aldatzen ez den bitartean, Nafarroako Parlamentuak onetsitako kredituetatik Udalen Funtza

osatzen dutenek, bai transferentzia arruntei bai kapital transferentziei dagokienez, honako tratamendua izan ahalko dute ekonomiaren eta aurrekontuen ikuspegitik:

– Aurrekontu-ekitaldiaren azken egunean bete-behar aitortu gisa jotzen ez diren kreditu guztiak tratatuko dira toki entitateek dituzten eskubide aitortu gisa.

– Horretarako, toki entitateen multzo guztia hartzekodun bakar gisa joko da, eta lehen azaldutako eskubideak izanen ditu Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren aurrean. “Nafarroako toki entitateen transferentzia-funtza” izena hartuko du, eta izen horri gehituko zaio kasuan kasuko ekitaldiaren urtearen aipamena.

– Kreditu horiek aipaturiko hartzekodunari ordaintzeko, banku-transferentzia bat eginen da finantza-entitate batean xede horrekin irekitako kontu batera, eta kontu horren titularra Nafarroako Gobernua izanen da, zeinak zaintza-eginkizunak beteko baititu harik eta aipaturiko hartzekodun bakarrak nortasun juridiko berekia izan arte.

2. Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio aurreko idatz-zatian ezarritakoa erregelamenduz garatzeko.”

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

27. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Azken xedapenetako laugarrena honako testuarekin ordeztuko zuzenketa: “Azken xedapenetan laugarrena. Indar hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.”

Zioak: Ez zaigu arrazoizkoa iruditzen indarra hartzeko eguna atzeratzea.

Foru Lege proiektua, Nafarroako ondareari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako ondareari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2007ko otsailaren 21eko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, zeinaren bitartez eskatzen baita Nafarroako ondareari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.

Zioak: Ondareari buruzko legea, non, besteak beste, legegintzaldian zehar maiz eztabaidatu izan diren gaiak, hala nola enpresa publikoaren definizioa, biltzen baitira, eztabaida patxadatsu eta lasaian aztertu behar da, eta amaitzen ari den legegintzaldi honetan ez dago horretarako baldintzarik, une honetan.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Nafarroako ondareari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen duena.

Zioak: Parlamentu-talde honen iritziz, ez da egokia foru lege proiektu hau Nafarroako Parlamentura igortzea; batez ere, gertatu den uneagatik. Unea desegokia da legegintzaldi hau amaitzeko gelditzen den denbora urriagatik. Tarte hori urriegia da edozein foru lege proiektu gutxieneko zorrotasunarekin izapidetu eta eztabaidatzeko. Foru lege proiektu batek tramitatzeko batez beste behar duen denbora, 2006an zehar igorri direnak kontuan hartzen baditugu, ia hiru hilabete izaten da, denboraldi baliogabeak zenbatu gabe. Egoera horretan ezinezkoa da Parlamentuan egoki azterzea, zuzentzea eta eztabaidatzea.

Halaber, gu ados ez gaudeneko alderdi garrantzitsuak ditu proiektuak; adibidez, sozietate publikoari buruz ematen den definizioa edo sozietate publikoen gain foru legeak ezartzen duen parlamentu-kontrol eskasa.

Bidezkoa da, ondorioz, horrelako arau baten eztabaida eta onespina hurrengo legegintzaldi baterako uztea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu: Nafarroako ondareari buruzko Foru Lege proiektua berriro gobernuari bidaltzea.

3. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako ondareari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Horren bidez, proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioak: Eusko Alkartasuna parlamentu-taldean harrিতa dakusagu nolatan Nafarroako Gobernuak lau lege proiektu aurkeztu dituen, haietako batzuk munta handikoak, hala nola Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea, Ondareari buruzko Foru Legea eta abar, legegintzaldi honen parlamentu-jardueraren azken bi hilabeteetan.

Lege proiektu horien guztien sakoneko eztabaida egiteko denborarik ezak eta eztabaida horretarako nahitaezkoa den prestaketa-lanak osoko zuzenketa bat aurkeztera behartzen gaituzte, proiektu horiek Nafarroako Gobernuari itzultzea proposatzeko, eta halatan hurrengo legegintzaldian eztabaida lasai eta patxadatsua egin ahal izateko, behar adina denbora izanik Legebiltzar honetako talde guztiok lege proiektu horiek hobetzeko asmoz ekarpenak egin ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, azaldutako arrazoietan oinarri harturik, Foru Legebiltzarreko Osoko Bilkurari proposatzen diogu Nafarroako ondareari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzeko erabakia hartzea.

ARTIKULUEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua, xedeari buruzkoa, aldatzeko zuzenketa. Hona proposaturiko testua:

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatearen ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen araubide juridikoa ezartzea eta fundazio, enpresa publiko eta Nafarroako Gobernuari dagozkion administrazioaren alor guztietako funtzionamendu-irizpide nagusiak zehaztea.

Zioak: Ondareari buruzko Lege baten xedek dinamikoa behar du izan, hala nola den ondasun publikoen administrazioaren xedea ikuspegi progresista batetik.

Proposaturiko testua estatikoa da, ikuspegi kontserbadore batetik eginiko lege proposamenak izan ohi diren bezalaxe.

2. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa, "4.000.000 eurotik" espresioaren ordez "3.000.000 eurotik" adieraz dadin.

3. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikuluko 1. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Honako testu hau kentzea:

"..edo pribatuei..."

Zioak: Ez zaigu ongi iruditzen foru erkidegoaren ondarekoak diren ondasunen administrazioa pertsona edo entitate pribatuen ardurapean utzi beharra.

4. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

64. artikuluko 1. idatz-zatia "larriak bi urteren buruan" jarri ordez "larriak hiru urteren buruan" jartzea eta "oso larriak hiru urteren buruan" jarri beharrean "oso larriak bost urteren buruan" jartzea proposatzen dugu.

5. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

103. artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa.

Proiektuaren testuaren ordez honako hau jartzea proposatzen da:

"b) Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak. Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikotzat jotzen dira honako baldintza hauek guztiak batera betetzen dituzten merkataritza sozietateak:

– Beren jardueraren bidez, neurri batean bederen, interes publikoko helburuak betetzea, industri edo merkataritza izaerarik ez dutenak.

– Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, zuzenean edo zeharka, haien jardueraren erdia baino gehiago finantzatzea edo haien jardueren gain eragin nagusia izatea, kudeaketa kontrolatzeko mekanismoen bitartez edo haien administrazio, zuzendaritza nahiz zaintza organoetako kideen erdiak baino gehiago hautatzea ahalbidetzen duten mekanismoen bitartez".

Zioak: Sozietate publikoaren definizioa Europako Erkidegoko zuzenbidera egokitzea.

6. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

103. artikuluan, b) letran, honakoa gehitzeko zuzenketa, "halakotzat hartzen dira..."ren ondoren: "ikuspegi honetatik".

Zioak: Ezertan ere ez dadila kontraesanik sor letra horretan sozietate publikoari buruz ematen den definizioaren eta kontratuei buruzko foru legeak emandakoaren artean.

7. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

III. kapituluaren 106. artikulua aurretik artikulu berri bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“105. bis artikulua. Definizioa.

Sozietate publikotzat joko dira kontratuei buruzko foru legediak halakotzat definituak direnak”

Zioak: Sozietate publikoen definizioaren homogeneotasuna.

8. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

107 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuaren testuaren ordezkari hau jarzea proposatzen da:

“107. artikulua. Sozietateak sortu, aldatu eta desegitea.

1. Sozietate publiko bat sortzeko, Nafarroako Parlamentuak aurretiaz baimena eman beharko du, Nafarroako Gobernuak proposatuta. Nafarroako Gobernuak ondare alorrean eskudun den departamentuari txostenak eskatuko dizkio eta, aldezkari aurretik, kasuko departamentuari.

2. Sozietate publikoak eraldatu, fusionatu, zati-tu eta desegiteko beharrezkoa izanzen da Nafarroako Gobernuak baimena ematea, ondare alorrean eskudun den departamentuak proposaturik eta kasuko departamentuak txostena eman ondoren.

Nafarroako Gobernuak baimen horiei buruzko informazioa bidaliko dio Parlamentuari.:

Deseginez gero, Nafarroako Gobernuak zehaztuko du, kasua bada, sozietatearen ondasunekin zer egin”

Zioak: Sozietate publiko bat sortzeko Nafarroako Parlamentuaren baimena izatera behartzea.

9. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

107. artikuluko 1. idatz-zatian, “Nafarroako Gobernuak baimena eman beharko du, betiere ondare gaitan eskumena duen departamentuak proposaturik”ren ordezkari “Nafarroako Parlamentuaren foru legea beharko da, Gobernuak proposaturik” jartzea proposatzen da.

Zioak: Parlamentuak bere iritzia agertu ahal izatea administrazio publikoaren egitura handitze-ari buruz.

10. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

109. artikuluan “4.000.000 eurotik”en ordezkari “3.000.000 eurotik” ipintzea.

11. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

112. artikuluko 1. idatz-zatian, “..eta libre geldituko dira”ren ondoren “, kasu horretan,” gehitzeko zuzenketa.

Zioak: Erantzukizunetik libre gelditze hori ez zabaltzea berariazko jarraibiderik jaso ez deneko kasuetara.

12. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

116 artikuluko 1. idatz-zatian, “ondare gaitan eskumena duen departamentuak egiten du” dioen tokian “Gobernuak erabakiko du” jartzea proposatzen da.

Zioak: Eragiketa horiek ezin egitea Gobernuaren erabakirik gabe.

13. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu berri bat, 117. bis, gehitzeko zuzenketa.

Artikulu berri bat, 117. bis, gehitzea proposatzen dugu. Eduki hau izanen luke:

“117. bis artikulua. Nafarroako Parlamentuaren baimenak.

1. Baldin eta foru lege honetako 116. artikulua aipatzen duen eskurapena 5 milioi eurokoa edo gehiagokoa bada, Nafarroako Parlamentuaren baimena beharko da.

2. Baldin eta foru lege honetako 117. artikulua aipatzen duen besterentzea 5 milioi eurokoa edo gehiagokoa bada, Nafarroako Parlamentuaren baimena beharko da.”

Zioak: Sozietateen sozietate-kapitala ordezkatzeko tituluen kostu bidezko eskurapen eta besterentzerako baldintza gisa Nafarroako Parlamentuaren baimena ezartzea, baldin eta 5 milioi eurotik gorakoak badira.

14. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Lehenbiziko xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian, “Hori ez da eragozpen izanen ondare gaietan eskumena duen departamentuari haien berri emateko” espresioaren ordeztu, hauxe ipintzea: “Beharrezkoa izanen da ondare gaietan eskumena duen departamentuari haien berri ematea,...”

Zioak: Ondare publikoa hirigintza-eskubideetatik eratorria denean ere, beharrezkoa da haren gaineko kontrola egotea foru ondare guztiaz arduratzen den departamentuan.

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Lehenbiziko xedapen gehigarriko 2. idatz-zatian, “deusetan ukatu gabe ondare gaietan eskumena duen departamentuari egin beharreko jakinarazpena” espresioaren ordeztu, hauxe ipintzea: “Beharrezkoa izanen da ondare gaietan eskumena duen departamentuari jakinarazpena egitea.”

Zioak: Ondare publikoa hirigintza-eskubideetatik eratorria denean ere, beharrezkoa da haren gaineko kontrola egotea foru ondare guztiaz arduratzen den departamentuan.

16. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

Xedapen gehigarri berri bat gehitzea, testu hau duena:

“Xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoetako administratzaileen agerraldia Nafarroako Parlamentuan.

Sozietate publikoetako administratzaileak ez dira behartuta egonen sozietatei buruzko legediak ezartzen duen sekretua gordetzera, haien egituko kudeaketaren berri Nafarroako Parlamentuari emateko deituak direnean.”

Zioak: Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoen gaineko kontrola egin dezan ahalbidetzea.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	